zeruko ARGIA

IDAZKOLA TA BANAKOLA: OKENDO, 22 - SAN SEBASTIAN - TEL. 426666 - PREZIOA 7 PEZETA

NON ZER

- LOKAMUTS Larresoro ... 3 garrenean
- INGLATERRAKO TXAPELKETA Aranegi ... 3 garrenean
- FRANTZIAKO LANGILERIA Iza ... 5 garrenean
- EUSKARA NAFARROAN Eguskitza ... 6 garrenean
- ELIZA INSTITUZIO (eta III) Arregi ... 11 garrenean
- IKASTOLA ... 12 garrenean

ANJEL LERTXUNDI

Imajinazioa askatu nuen

Haurtzaroko esperientziak gorde nahi ditut

Hogei ta bost urteko mutil gazte ameslaria dugu Angel Lertxundi. Orion jaio eta Zarautzen bizi den gazte ezkongaia gainera. Gaurregun ikastolako irakasle. Lehen, orain eta gero, berriz, idazle. Eta idazle ona eta amorratua.

Agian, ez gara euskaldunok liburu bat eskutan hartu eta gure gelan sartzekoak. Ez gara literaturaz arduratu.

Ongi da. Baina bai ahal du literaturak halako garrantzirik? Bai ahal du literaturak euskera batasun bideetan jartzeko kemenik?

Anjel Lertxundirengana jo dugu. Eta ez irabazi berri duen «Urrezko Luma»gatik, literaturaz zerbait esateko gauza delakotan baizik.

—Berezitasun ugari egin beharreko galdera da. Literatura goi mailako olerki eta narratibagintza bakarrik ahal da?

—Hori bai, bainan ez hori bakarrik. Literatura hori baino gehiago da, herriaren espresibitate guzia bereganatzen du. Haurzarotik zaharzarora arte. Ikuspegi bereziak sortzen ditu literaturak. Ez da absolutoa, bainan ez dugu horregatik baztertuko. Soziolojia absolutoa ahal da? Guk, euskaldunok, izadiaz izan dugun ikuspegia sentimentala da oso, oinarririk gabea, gizonarekin loturarik ez duen ikuspegia. (Ikus Onaindiaren "Milla euskal olerki eder"). Batasun bat dago ikuspegi horretan. Bainan batasun urratua da, hila, joana. Eta joanak joan, batasun berdinarekin, ikuspegi berdinarekin, literatura berdinarekin jarraitu behar ahal dugu egun ere? Hemen dago kakoa. Era horretan, literatura zabal bat martxan jarriko bagenu, ez genuke euskera bakarrik batasun bidetan jarriko. Baita Euskal Herria ere.

—Eta nundik sortzen da, orduan, gaurko gure arteko puskaketa?

—Garbi dago. Puskaketa lehengo batasun hilarekin —eta ez hizkuntzarena bakarrik— jarraitu nahi luketen eta batasun berri bat aurkitu nahi genukeenen artean dago. Gainuntzekoak, axalkeriak dira, engainaturik jardutea. Begi bat omen du saltzaileak eta ehun ez ditu sobera erosleak. Hemen dago puskaketa. Nor den saltzaile eta nor erosle, hori da nik dakidana, alegia, erositakoa edo saldutakoa, herria dela.

—Konturatzen garenez, Anjel, arazoa zabaltasun osoan hartu nahi zenuke. Zail da eta azterketa luze eta sakon bat eskatzen du zuk azaldutakoak. Bainan zuk, personalki, uste ahal duzu zerbait jartzen duzunik, idazle bezala, egoera honetan?

—Nerea ez da narratibagintzan bideak irekitzen saiatzea besterik. Bidea irekitzea diot. Eta hau garbi utzi nahi nuke: Gure mendea, erdi-bideko mendea da. Lanean harrokeriarik gabe bainan atsedenik gabe jardun behar duen mendea. Ikastoletatik datorren belaunaldia, bestela, dena egin beharrean aurkituko litzake. Denok apaltasun honetan jardunen bagina, beste oilar batek eginen liguke zirin, eta ez etxekoak.



—Nik aurkitzen dut halako salto bat, berezitasun bat, zure lehendabiziko obratik bigarrenera.

—Baita nik ere. "Hunik arrats artean" Erroman egina zen, urrutiratu egin nintzen... Eta freskoagoa da. "Ajea du Urturik", ordea, hemen egina da, eta, nahi eta nahi ez, herriak bere arazoak kutsatzen dizkizu. Barren xelebrea behar da herrian egon eta herria seriotasun osoan aztertzeko. Bigarren obran, gure egoerak bereganatu ninduen. Tamalgarri ahal da hori? Ez dakit. Dakidana, obra horretan azaltzen dela nere ideia maiteenetako bat: Alegia, herri bat salbatzeko nahiko dela munduko mozkorrik ardo-zaleena... itxaropenik badu. Azken orrietan, herriak urkamendira eraman duen gaztea arrain bilakatzen da, herriaren gosea asetzeko. "

—Ze asmo zenuen lehendabizikoaz? Harrigarri zitzaigun argitara eraman zenuenean, eta harrigarri zaigu orain ere.

—Ba horixe: Harritu. Egia da, argitaratzeko garaian nere beldur eta zalantzak banituela. Ez nekien zein izanen zen arrera. Obra klasiko baten gogorik ez nuen, eta ez dut gaur ere. Ez dut esaten egin behar ez direnik. Eta imajinazioa askatu nuen. Ez da besterik. Hogei ta bi urteko mutil batek imajinazioa askatu ahal dezakeen mailan askatu nuela uste dut nerea, eta hor dago. Gero, arrera ona izan zuen, eta zer gehiago nahi nuen nik? Gainera, euskera oso erraza dela iduritzen zait. Ni ez naiz behin ere estilista bat izan, estilista, hizkuntzaren tekniko ugariegi degoela uste dut une honetan. Gero, eta imajinazioa aipatzen dudanez, euskerak posibilitate izugarriak ditu imajinak sortzeko. Bi hitz —edozein— elkarren artean lotzen badituzu, imajina bat sortua duzu. Nik, euskeraz, odol hitzari edozein margo erantsi nizaioke. Zuri, beltz, gorri... Saia gauza bera egiten erderaz.

—Eta gerorako asmoak ere izanen dituzu ba?

—Sapelatsak bakarrak ezagutzen ditut geroaren ametsik gabe. Eta bere buruarekin amaitu nahi dutenak. Eta nik ez dut ez sapelats izan nahi eta ez bururik errekara bota nahi. Txantxak alde batera, nobela batean ari naiz. Ezberdina bi lehengoetatik, nahiz eta euskeran lehendabizikora urreratu. Ikastoletako egiten ari garen testoetako euskera zaila, teknikeri hutsekoak irakurtzen ditudanean... nere ikasleen erruseraz irakurtzen jardunen balira bezalako begiak gogoratzen ditut. Badugu hizkuntza. Ausartu egin behar. Ez gaude hizkuntzaren mendeko, hizkuntza dugu morroi. Ez dakit... sarritan hau ahaztu egiten dugula dirudi.

—Eta zertaz ari zara nobela horretan?

—Oso memori txarra dut. Eta haurzaroko esperientziak gorde nahi ditut. Anekdotak asmatuak dira gehienak, bainan ez esperientzia. Uda azkenean irtenen ote da...

——oOo——

Saritu berri den bere «Ajea du Urturik» liburuko hasierarekin amaitzen dugu guk:

«Armiarma sarea zabaldu zen lurralde haietan eta Urturi (Euskal Herria) gelditu zitzaigun erdian. Espiralaren amaia. Bizitza eta heriotzaren arteko une zail eta ilunean».

ERRIALDE

(c) Ministerio de Cultura 2005

NERE BORDATXOTIK

Denbora bero, sargoria atzokoa. Aurretik izandako muxiñak ez bezekoa kanpoak irabazteko.

Izketa-gai nagusia Eibar'en jokatutako partidua izan zan. Retegi ta Tapia, Tapia ta Retegi. Besterik etzan entzuten.

Dirudienez, eskuetatik igesi zion txoriak gipuzkoarrari. Jaun da jabe ibili luzarotxoan, eta azkenik burua makurtu bear. Buruz-buruko partiduetan orrelakoxe goraberak izaten dira.

Guk, arratsaldean Tolosa'rako bidea artu genduen, aizkolariak ikusi asmotan.

Albiztur'ko Santa Marina bailerako Garmendiak etzuen kontrariorik arkitu; nai zituenak egin zituen Uarte Arakil'ho Gorritigatik.

Geure bizitza osoan lenengo aldiz atzo ikusi genduen euskeraz eztakien aizkolari bat. Zoritxarrez, Naparroa'ko Uarte Arakil'en, gazteen artean beintzat, galdua da gure izkuntza. Ta Gorriti'k ez izan ogei urte besterik.

Adiñez (edadez) biak berdiñak, Garmendia ta Gorriti: ogeiña urtekoak.

Aizkolariz askoz geiagoa da gipuzkoarra. Gorputzez ere bai.

Garmendia'ren pixua: 18 kilo.

Garmendia'ren erakuslea: Migel Mindegia.

Botilleroa: Bixente Arzaluz.

Gorriti'ren erakuslea: Juan Igoa.

Botilleroa: Migel Gorriti.

—oOo—

Neurketa asi aurretik, "eun ogeitamarri" zegon dirua gipuzkoarraren alde. Korredoreak etzuten lan aundirik izan.

Lanean asi ziranerako ikusi genduen kolorerik etzegola; gipuzkoarra askoz geiago zala.

Egurrak oso ondo jarriak zeuden. Legeak agintzen duen bezela, borobiltasunik galdu gabe. Aurreko oitura zarrean, itz batez esanik.

Amarna kana-erdiko zituzten ebaki bearrak. Erdi lanetarako enbor eta erdiren aldea atera zion albizturtarrak, oker aundi gabe. Naparrak etzeukan begirik argitzerik iñolako moduz.

Garmendia'k lan danak bukatu, ta artean saio ikaragarria egin bear izan zuen Gorriti'k zortzigarren egurra bukatzen.

Andik aurrera etzan pasa. Zertarako?

Beraz, bi kana-erdiko gelditu zitzaizkion oso-osorik, aizkorakada bakar bat eman gabe.

Gazte bat izateko aizkolari polita da Garmendia. Itxura batean egin zuen lana, ta gogoz txalotu zuen jendeak.

Gorriti'k eztauka etorkizunik aizkoran. Ariña da gorputzez eta kolpe koxkorrak dira bereak; indar gutxitxo.

Etzan jendeketa aundirik bildu. Ez ezagunak izan nunbait: berriak, alegia.

—oOo—

Ikus ditzagun baten eta bestearen denborak.

GARMENDIA

Lenengo kana-erdikoa, 3 minutu ta 40 segundoan.

Bigarrena, 7 minutu ta 12 segundoan.

Irugarrena, 10 minutu ta 52 segundoan.

Laugarrena, 14 minutu ta 50 segundoan.

Bosgarrena, 18 minutu ta 48 segundoan.

Seigarrena, 23 minutu ta 53 segundoan.

Zazpigarrena, 28 minutu ta 13 segundoan.

Zortzigarrena, 31 minutu ta 43 segundoan.

Bederatzigarrena, 35 minutu ta 47 segundoan.

Amargarrena, 38 minutu ta 36 segundoan.

Berrogei minutuan ezetzean egon ziran trabesak.

GORRITI

Lenengo kana-erdikoa, 5 minutu ta 20 segundoan.

Bigarrena, 10 minutu ta 32 segundoan.

Irugarrena, 15 minutu ta 20 segundoan.

Laugarrena, 21 minutu ta 8 segundoan.

Bosgarrena, 25 minutu ta 28 segundoan.

Seigarrena, 29 minutu ta 58 segundoan.

Zazpigarrena, 35 minutu ta 18 segundoan.

Zortzigarrena, 40 minutu ta 45 segundoan.

Zortzigarrena erdibitu bezin azkar erretiratu zan.

Tolosa'ko aizkol jokoak etzuen Eibar'ko partiduaren antzik.

Estuago ta larriago ibili ziran Retegi ta Tapia. Alde ederra!

Aia'tik barrena etxeratu giñan, eta Aia'n berebiziko animazioa nabaitzen zan. Probak, demak baiziran arratsalde ta gau.

Larunbat gabean izan ziran lenengoak. Atzokoa zan bigarren dema-eguna. Datorren larunbatean izango da irugarrena, igandean, au da, maiatzaren ogeian bukatzeko.

Kanpo egun zoragarria. Bide bazter guztietan kotxeak ikusten ziran eta itzalpean familiak meriendatxoak egiñaz. Aur jendea ere bai gustora asko.

Baxarri

CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE PAMPLONA

SARASATE, 5 TELEFONO 224440

Onen ajentziak erri auetan dituzu:

Tudela, Billaba, Huarte-Iruñe, Etxarri-Aranaz, Txantrea, Errotxapea, Azagra, Eneritz, Martzilla, Isaba, Huarte-Arakil, Ensanche, Lerín, Otxagabia, Karkar, Olazagoiti, Sartaguda, Ablitas, Milagro, Fitero, Kadreita, Andosilla ta Noain-Beriain.

Agencias:

Tudela, Villava, Huarte-Pamplona, Echarri-Aranaz, Chantrea, Rochapea, Azagra, Enériz, Marcilla, Isaba, Huarte-Araquil, Ensanche, Lerín, Otxagabia, Karkar Olazaguiti, Sartaguda, Ablitas, Milagro, Fitero, Cadreita, Andosilla y Noain-Beriain.

ETXEKO - ANDRE: IRAUN ARAZI ZURE ARROPEI ONOKO JABOI ONEKIN:

JABON LAGARTO

Zure garbiketa makinaz egiten ba'dezu
ATOMIZADO LAGARTO — jaboia erabilli beti
Eskuz ba'zabiltz, LAGARTO — jaboia bear dezu erosi

JABON LAGARTO, garbiketarako jaboi bakarra
Etxeko-andrearentzat neskamerik egokiena.

¡JABON LAGARTO!

TRANSPORTES azkar

ERAMAN - EKARRIRAKO KAMIOI AUNDIAK
Barcelona, Zaragoza, Valencia, Madrid, Oviedo, Gijón.
Donosti'tik egunero:
Iruña, Bilbao, Gazteiz, Jerez de la Frontera, Cadiz, Alicante, Murcia, Cartagena, Granada, Almería, Santander, Valladolid, Zamora, Palencia, Salamanca-ra.
Astean iru aldiz:
Sevilla, Lugo, Coruña, Orense eta Vigo'ra.
Carretera Gral. a Hernani - B.° Ergobia - DONOSTIA
Telefonoak: 450313 eta 459723
Aptdo. 1381
Aptdo. 1381





TXIMIST - INDAR SAILLA
Departamento ELECTRICIDAD

LANERAKO, BANAKETARAKO TA AGINTZEKO TRESNAGITZA

Aparatos de maniobra, distribución y control



OLIO - INDAR SAILLA
Departamento
HIDRAULICO

GARBE - LAHMEYER
WUPPERTAL - ALEMANIA'ko
Etxearen banaketa ta
teknika laguntza

Banaketa ta Teknika laguntza:
REX - ROTH GMBH Alemania
RUHRITAL Sp A Olio-indarra Italia
TUROLLA Sp A. Italia

Goimendi - Automatismo

AUTOMATISMO

Goimendi

Lantegi ta landalak:
Jolastokieta (Herrera)
SAN SEBASTIAN
Urrut. 353840 (7 ari) ta 351860
Telex. 36173 GOIME E
Erakusketa eta denda:
Iparraguirre, 15 - SAN SEBASTIAN
Urrut. 426662 ta 426625
Ordezkaritza:
Erlejo Sardon, 18. Urrut. 220335-36
VITORIA

aristegui hermanos

ZORUAK ETA ESTALKIAK,
PERSIANAK, ATEAK, ETA ABAR.
GARBITOKI ETA ITURKINTZA GAIAK.

ERAKUSTOKIA:
FUENTERRABIA, 19 - URRUT. 11459
DONOSTIA

ECHABE

ETXABEREN
Mueble - Etxea

Fuere'en Enparantza

Urrutizkiñek: 84 10 76
84 11 24

ZARAUTZ

ORMAZABAL - DAR DUNIXI

ETXEGINTZA TA ETXE - TXUKUNKETARAKOAK
URALITA ORDEZKARIA

TOLOSA
Urrutizkiñak:
Etxekoa 65 19 60
Landolakoa 65 19 33

URRETXUA
Urrutizkiñek:
Landolakoa 67 17 84

ERAKUSTOKIA: Tolosa'n - Zumalakarregi, 7'an

(c) Ministerio de Cultura 2005

Don Jose Migel, gure eredu

D. Jose Migel Barandiarani omenaldi bat egingo zaio Ataunen, Ekainaren 12tik 21era.

Omenaldi honen berri emateko eskatu zaigu. "Euskal Herri osoaren gogo bat beteko dugulakoan Joxe Migel Barandiarani, gizon jakintsu, herrikoi eta zintzoari omenaldi bat antolatzen hasiak gara, eta honen programa ia osaturik dugu", aditzera emateko digute eskutitzez.

Badute Ataundarrek sena. Badakite Euskal Erri osoaren gogoa dela omenaldi hau egitea. Ez dago zalantzarik, gure ustez. Ondo merezia du. Ataungo San Gregorion jaioa dugu orain dela larogeita iru urte. Geroztik ez dugu uste geldirik une asko igaroko edo denbora asko alferrik galduko zuenik. Bere izaera eta bere lan ikaragarri, bikain, sakon eta zehatzagatik Euskal Errian eta munduan ezaguna, maitatua eta aintzakotzat artua dugu.

Hauxe dio gure Don Jose Migelegatik Luis de Castresanak: "Ezagutzen ditugun obretatik neurtzen badugu, ene ustez, bizi diren euskaldunetatik aundiena Don Jose Migel Barandiaran dugu. Arrigarria da adineko apaiz honek etnolari eta arkeolari bezala egin duen lana. Ez dut uste behin ere ordainduko diogunik Euskal Erriagatik egin duen guztia".

Julio Caro Barojak, berriz, "Eusko-Folklore"an argitaraturiko lanak goraipatuz: "Emen argitaratzen diren lan guztiak dira irakurgarriak beren zehaztasun, zentzu on eta sakontasunagatik baina batipat gizon honenak".

Etengabe lanean ari den gizona dugu Don Jose Migel. Euskal Erriko zantzurik eta aztarnarik zaharrenak biltzen eta aztertzen diharu aspertzeke eta nekatzeke. Euskal Kondaira-aurreko ezur, arlandu, lur, marrazki, margo, ipuin, sineskeria, askazia eta abar bildu eta aztertu ditu.

Gorputzez txiki, baina izatez aundi den gizon hau ezaguna dut gure arpe, mendi eta baserriek. Eta ezaguna dute munduko jakintsuek, Unibertsidadeek eta aldizkariek.

Baina ez dezagun uste, gutxi bezalako maixu eta jakintsu honek ezeren maixukeriarik eta jakintsu aizerik duenik. Hauxe da gure ustez aundien eta arrigarrien batez ere gaurko giroan. Bi itz ikasi ordurako dena dakigulakoan gabiltza arropuzturik. "Hau honela da, hori ez da honela" diogu zalantzarik gabe noiznahi. Honelako gutxi entzungo diogu Don Joxe Migeli: "hortaz ezer ez dakigu, hortaz ez dago ezer garbirik, hori honelatsu izan daiteke, hori oraingoz, nere ustez, beste zantzurik aurkitzen ez dugun bitartean honela da".

Maixukeriaz eta dogmakeriaz betetako gure gizarte hontan honelako ahoberokeriarik gabeko maixua dugu Don Joxe Migel. Eta hori, bizitza osoan ikusten, miatzen, aztertzen eta sakontzen jardun den gaietan. Beste alorretan, berriz, maixu direnei entzuten dakiena. Ez da ibiliko ez dakien gauzarik asmatzen eta esaten. Asko dakienak bakarrik daki gutxi dakiela. Gutxi dakiela dakian jakintsu aundi hoietakoa dugu Don Joxe Migel.

Badaki ongi berak ez dakizkian gauza asko dagoela munduan. Badaki berak ez dakizkian gauza asko dakian jakintsurik ere badela munduan. Hau da gure ustez gizon honen beste alderdi arrigarri bat. Ez da sartzen alferriko eztabaidetan. Ez da zipozkerietan ibiltzen. Ez da ika-mikako gizona. Ez du gaurregungo petralkeriak eta setakeriak zikindu eta kutsatu. Beronek esana omen da eta berari dagokio honako hau: "Guk adinean sartuok ez dugu txikikerietan sartu behar, guk ikustez, ikastez eta eskarmentuz dakigun hau eman behar diegu gazteei".

Inor gutxi ezagutzen dugu gure artean bi gaitz hauetakoren batek jo gabea: edo maixukeriak edo zipokeriak. Don Joxe Migel dugu aje hoietakoren batek jo gabeko gizona.

Horregatik artzen dugu gure eredutzat, bere lan luze-zabalen sakontasun eta zehaztasunagatik, bere zabaltasun eta apaltasunagatik.

Euskaldunon eredu eta maixu honen omenaldia antolatzen digute ataundarrek. Gizon ospetsu honen gorazarrez egingo dira berton jaialdi hauek: "itzaldiak, aurren eguna, bertsolariak, abeslariak, dantzari taldeak, txistulariak, euskal arte, hau da pintura eta eskulturen erakusketa, euskal disko eta liburuen azoka, erri meza, trikitixak eta abar".

Gora gure Don Joxe Migel.

LOKAMUTS

Epela zen giroa. Eta kukua entzun nezan urrunean; eta kirkirraren maite-deia zabal zedin belardietan. Eta haize-balak, zurrumurru leun igarokorretan, zuhaitzen hosto berrien artetik itzal zitezen.

Aldare argitsuak ikus nitzan bazterretan, ugari, ezin ugariago, bazterrak oro aldarez mukurru. Eta giza-ttutturru anitz ikus nezan, ilaratan ibilki: more, gorri, berde, hori, urdin, ezerezetik ezerezera geldiro beilari. Eta mila organoren soinu sakratuek urra zitzaten eskualdeak. Baina gorantzan orroaka aipatzen zena, ez zedin inon ager.

Eta garruztar maitatua ikus nezan; eta, bere sasoinik hoberenean, bertsotan mintza zekidan harrigarriro. Eta hau esan ziezadan goratik:

«Heldu duk eguna, adiskide, eta badiakiat. Kaliza edan gabe ez diagokek irtenbiderik; eta gaztetan deitu nindúenak bezalaxe edanen diat nik ere. Dena eman, ez parte bat soilki. Enekin ez, baina ni gabe: horra hor gizonari eskain dakiokeen kalizarik garratzena. Hozitzen hasi den udaberri eder hau nahi niake dastatu eta uxtiatu; baina ez diat dastatuko, are gutxiago uxtiatuko. Betor, halere, kaliza mingotsa! Isil bedi ene ahoa hirea eta zuena inoiz libroki mintza ahal dadinzat. Ezezta bedi ene bizia osoki, zuek inoiz zerona molda ahal dezazuenzat. Bihotzaren erditik maitatu dizkiat neureak; bihotzaren erditik maitatu bizia, sakonki mendi eta zelai berde hauek; erraitetatik, bakarrik geldituko zareten zuek hirurok! Bihotzez zuek guztiok, isilaroko nekakideok oro. Beharrezkoa duk, ordea, betirako isil nadin, eta betirako urrun nakizuen. Agur t'erdi! Harren bazka naitenean, bizi izan nauena piztuko duk».

Eta horrela mintzatu zenean, bele urdin talde kondagaitz bat ingura zekion; eta garrasi bildurgarri bat entzun niezaion; eta hain maite genuena, bere gerria bi eskuez etsita heltzen zuelarik, sinetsi ezinezko moduan makur zedin, ezpainez lurrean muin egin arte.

Eta kukua eta kirkirrak isil zitezen eskualdean.

Eta haren garrasi erdiragarri hura ez zen eteten; eta, haren gerritik bezala, odolezko iturriak jalki zekizkidan neure begietatik. Eta belatzar talde gaitz hura ingura zekidan, eta azaldu ezinezko ikarak har nintzan. Eta ttutturru urdinek eta gorriek barre zegiten.

Eta oraino garruztarra bizirik zelarik, haren errai beroak erauzten eta jaten has zitezen belatzarrak. Eta ikuskari izugarri hura ezin jasanik, atzekaldera itzul nezan neure begirada. Baina haren oihu lazkarriak hel zitezen orduan ene belarrietara. Eta ilara luzetan aldare apainduetara hurbiltzen zirenek, ttutturrua ken zezaten burutik; eta denak barrez ari zirela ikus nezan.

Horrelakorik ikusi duenak ez du nehoiz ahantziko.

Eta beleek, gorri eta urdin nahasketa zalapartatsuan, algaraz xukatzen zuten haren odola. Eta goragaleak har nintzan, eta txori zantarrak uxatzen saia nendin. Ezin neure besoei eragin, ordea; eta beleek osoki jan zezaten gorputza.

Eta hamar kanatako belatzar gorri bat hurbil zekidan, eta ene bi begiak erauz zitzan mokokada bakar batez. «Alu urde zerri hori!» esan nezan, baina ezer ez zedin entzun; eta izuturik iratzar nendin.

Ene maindireetan eta burukoan ez zegoen odol aztarnarik, ez malko hezadurarik batere. Hortzak karraskan neduzkan, hilotzak jota itxuraz, eta arnas-hestuka leihora nendin. Eta oka egin nezan azken behazun arrastoak ere bota arte.

Ederra zen gau isila, eta lehen oilarriteak entzun ahal zitezkeen urrrungo baserrietan.

«Belatzarrak nagusi bazterretan —esan nezan— eta arkumeak belabazka. Hik prestatu duan egunsentia hortxe ageri duk Ekaldean. Baina hi gabe diatorkek; eta hik, gizajo horrek, ez duk ikusiko!». Eta negar zotinak eta oihartzun harrigarriak entzun nitzan bazter guztietan. Eta Jainkoa madarika nezan.

Argituaz zoan goiztiria; eta bapatean, mendiez bestaldetik, oste gaitzen kanta ozena entzun nezan:

«Ez gal gure odol beroa!

Bizi bedi gure Xiberoa!»

Eta gau azkengabean lehenengo aldiz isur zitezen malkoak oparo ene masailetan behera.

Eta bozkarioz beta nendin. Eta ene deliberamendua azkar zedin:

«il naiago dot
ikusi baño»

Eta hire irudia iratxeki nezan gelako horman; eta hortxe diagok, ene birauen eta deliberoen oroigarri. Eta hortxe diagokek tinko ni bizi naizeno, gu guztiok bizi gareno, hi haizen bihia uzta bihurtzen deno.

Eta elkar gintezen irudiaren inguruan. Eta ttutturru urdinak eta gorriak, ilara azkengabetan, amil genitzan malkorretan behera. Eta erroiek, bele beltzek eta putreek jan zitzaten haien hondakinen hondakinak; eta haien izenak berak suntsi zitezen lurpean.

Eta kukua entzun nezan urrunean.

LARRESORO

INGLATERRAKO TXAPELKETA

Filme hura ikusi nuela badira urte batzuk. Nere aurrean gurasoak beren hamabi-hamalau urteko semearekin. Gerrakoa zen filma bera. Hamaika gizaseme hiltzen ikusi genuen. Mutikoak ere lasai ikusten zituen hainbeste heriotza. Zaldia hiltzen ikusitakoan larritu zen. Zeharo harriturik hauxe esan zuen gogor samar: «begira zaldi bat hil dute».

Ez zen itxura denez ordurarte hil zituzten gizon, emakume, gazte, zahar eta umeengatik harritu. Baina zaldia hiltzen ikusitakoan biziro harriturik eta txunditurik geratu zen, arrunt minberaturik. Ume horren gizatasuna zegoela zeharo zapuzturik esan dezakegu. Lasai hartzen zuen gizonen hilketa. Ohiturik zegoen hortara. Baina ez zegoen zaldiak hiltzen ikusten ohitua.

Telebistak eta egunerokoek diotenez gertakizun xelebre bat gertatu da joan den astean.

Inglaterrako Txapelketa jokatu zen Londreseko Wembley zelaian. Beti bezala ekipo bik jokatu zuten. Baina biak ez ziren maila berdinekoak. Bata lehengo mailakoa eta bestea bigarren mailakoa ziren. Eta hain zuzen bigarren mailakoak irabazi zion lehenengo mailakoari. Souderdaudnek Leedsri, alegia.

Mundu guztiak zioenez lehenengo mailakoak irabaziko zuen. Hala zioten bai kritikoek eta bai jendeak. Baina ez zen hala gertatu. Nahiz eta lehengo mailakoak ostikalari onenakin jokatu.

Eta Inglaterran gertatu dena gure artean gertatu balitz? Esate baterako Barakaldok edo Osasunak Real Madridi edo Barcelonari irabaziko balio? Hau, gure artean, ezinezkoa dugu. Ez diteke honelakorik gerta.

Gertaera hortan gauza batzuek harritu gaituzte.

Alde batetik Inglaterran ditekeen gauza dela bigarren mailako ekipo batek lehenengo mailakoari txapela irabaztea. Gure artean ezinezkoa dena, han ez dela ezinezko. Halaz guztiz ere Inglaterran ere harritu egin dira, bestalde. Ez zaie hain bidezko iruditu. Gizona beti gizon.

Lurralde guztiak hustutzen dira diruaren truke. Diruak bereganatu egiten ditu gizonik trebeenak ere. Eta dirua dela eta bai fubolian eta bai beste edozertan ere lehenengo, bigarrengo eta hirugarrengo mailakoak sortzen dira. Eta hau fubolian bezala artean, lanean, agintean... Honela lehengo mailako eta bigarren mailako gizonak sortuz goaz.

Eta behin dibisinoak sortuz gero ez dago inolaz ere bigarren mailakoak lehenengoari irabazterik ez hirugarrengoak bigarrengoari. Aurreko mailara berehala pasako dute hurrengo mailako norbaitek hobeto jokatzen badu. Laster lehengo mailakoak dirua aginduko diote.

Hauxe izango da bidea: dirua, gizonak; dirua gizonak. Izenez berdinak dira aurreneko dirua eta bigarren dirua; aurreneko gizona eta bigarren gizona. Baina izanaz oso desberdinak dituzu. Gizonak aldatuz badoaz, baita dirua ere aldatuz doa eta espiral batean haundituz.

Ekipo bat osatzen dute lur desberdinetan sortzen diren ostikolaririk onenak diruaren truke. Ekiporik onena izanaz diru gehiago irabazten dute. Orduan, diru gehiagorekin, jokalari hobeak eros ditezke.

Diru madarikatua, esan dezake norbaitek. Diruaren aurka jartzea, diruari jokoa egitea da.

Dirua, dirua... zer da dirua? Diruak berez ez du ezer egiten. Dirudunak, dirua daukanak egiten du zerbait.

Gaurregun ezin gara dirurik gabe bizi. Dirua, tresna ekonomiko bat da. Horregatik gauzak dauden bezala uztea da diruaren aurka jartzea.

Arazoa sakonagoa da. Gizonak salgai ezin ditezke egon. Alde haundia du eguneroko bizitzarako salneurri haundia edo txikia izan. Baina saineurri haundian jarriagatik ere gizona ez diteke salgai ipini. Gauzak bakarrik saltzen dira. Gizona ez diteke sal gauza bihurtu gabe.

Dirua beharrezkoa dugun tresna bat dugu. Beraz ez gintezke diruaren aurka jarri, salketaren aurka baizik. Gizona salgai jartzearen aurka, alegia.

Eta ez da ezer salduko eroslerik ez bada. Eroslea menperatzeko, berriz, diruaren jabegoa zabaldu beharko dugu. Denok diruaren jabe garenean inork ez du bere bururik salduko. Herriak ere ez dira hustuko.

Egun hartan lehengo mailako ekipoak bigarren mailakoari jokatuko dio.

Baina egun hori ez da berez guregana etorriko. Ekarri egin beharko dugu. Gu saiatu garelako gertatuko da hori. Bitartean diruaren jabeak lurrak eta herriak hustutzen joango dira bai giza-aldetik eta bai gizonak lortutako gauzen aldetik.

ARANEGI

zeruko ARGIA

Zuzenadaria:
- MIREN JONE AZURZA

ARISTEGIETA

Nafarroa-Kantauri eta Aragoiko Kaputxinoak argitaratua (Kale Nagusia, 50-1.º Burlada-Pamplona).
Donostian: Okendo, 22
Tel. 42 66 66

ARPIDE SARIA:

Barruan	300 pezeta
Korreo batasunetako erretan	350 pezeta
Atzerrietako beste erretan	370 pezeta
Aldez	Aurrez galdetu
Salmetan (ale bakoitza)	7 pezeta

Irarkola:
«Gráficas Navasal»
A. Adoain, 1 IRUÑEA
D. L.: NA. 80-1963

EGUN EGUNEKOA

LANGILE BATEN HERIOTZA

Lankide guztiekiko maitagarri eta lanean ezin trebeago, Gasteizko lantegi batean egiten zuen lan Mikelek. Duela bi urte, itsuski bota zuten, beste askorekin batera. Igaz, hilero ematen zioten ordaina ukatu egin zioten tupustean. «Nereak egin du! Nereak egin du!», esaten omen zue neritegian, eta Aste Santuko goiz nabar batez hil zen neskame den emazte negartsua ondoan zuela.

Zer izkribatu duzu hil-agirian osagile horrek? Ondosko dakikezu zergatik hil zaigun Mikel. Ala hori ez duzuia ikasi?

Daniel Ibargoiti

JOSTUNDEGIA MODISTEGIA
UGARTE
Urbieta, 66 DONOSTIA

(c) Ministerio de Cultura 2005



BERRIAK Tolosan ezezik, bada hil honetan beste edozenbat euskal kultur saio beste zenbait herritan ere. Lerro hauk idazten dihardugula, eratzen ari da Algortan II Euskal Kultur Astea. Saioen artean, hiru hitzaldi —Jose Maria Larramendi (Artez), Abel Muniategi (Literaturaz) eta Antonio Cayero (Ekonomiaz)— eta jaialdi bat —Oskarbi, Oihartzunak, Gorka Knörr, Lupe eta Zarraga— dirateke aipagarrienak.

● Aste berean, hau da, maiatzaren 7tik. 13ra. bitarteko zazpi egunen buruan, beste kultur aste bat eratu da Errenterian, hamairu urte beherako haurrentzat bereziki moldatua. Filmak, jaialdiak, kanta lehiaketak, ginol eta antzerki saioak eskaini zaizkie haurrei, bai eta, amaiera bezala, mendi ibilaldi bat Andazarratetik Bidaniaraino Ernio zehar.

● Beste horrenbeste Eibarren. VIII Umeen Euskal Jaia dela eta, programa nahiko polita Arrate Elkartekoek burutu duena. Denetarik izanen da maiatzaren 22tik. ekainaren 3ra. bitarteko hamairu egunen barruan: hitzaldiak, jaialdiak, erakusketak, filmak, ginol eta antzerki saioak, folklore jaiak eta beste.

Programa osoa 10garren orrialdean irakur dezakezun arren, diogun hemen hilaren 27an. omenaldi bat eskainiko zaiola Eibarren "Uztapide" bertsolariari. Lasarte, Mattin, Xalbador, Basarri, Mugartegi, Lizaso, Lazkano, Agirre, Gorrotxategi eta Arozamena bertsolari guztiz ezagunak Eibarren bilduko dira egun horretan Astelena Pelotalekuan, Loiolako Jose Mari Iriondoren zuzendaritzapean.

● Dagoeneko Gipuzkoan barrena eratu diren II Eskolarteko Euskal Dantza Saioen amaiera gisa, hilaren 27an. "Dantzari Txiki Eguna" ospatzeko da Oñatin. Iaz Zaldibian bezala, aurtengo jai egun hau ere "Euskal Dantzarien Biltzarrak" eratua izanen da, eta bertan parte ahal izanen dute Donosti. Azpeitia, Añorga eta Ordiziako saioetan hautatutako dantza taldeek.

● Egun berean "Biki Eguna" eratzeko da Donostian. "Bizkiak" deritzan elkarte hau 1966 urtean sortu zen Eibarren, eta sortzaileak epskaldunak eta hizkeraz bizkaitarrak izan arren, giputz izena jarri zioten elkarteari, kanpokoa beti hobea delakoan.

Geroztik, urtez urte, Bilbao (1967), Donostia (1968), Gasteiz (1969), Iruñea (1970), Logroño (1971), eta Gernikan (1972) bildu izan dira Euskal Herriko bikiak. Aurten, Donostian bilduko dira bigarren aldiz, eta bilkura honek izanen du berezitasunik, Ipar Euskal Herriko bikiak ere bertan izanen bait ditugu.

● Maiatzaren 24ean. Frantziako hauzitara joan behar izanen du Ipar Euskal Herriko ENBATA astekariak. Joan zen udazkeneko gertaerak lekuko, aldizkari horretan zenbait idazlan argitara eman zen, Frantziako Poliziaren jokaera "Gestapo"ren antzeko zela salatuz. Salaketa honetan omen datza ENBATAren hauzia eta bere zuzendari den Mikel Burukoa jaunaren erantzukizuna.

● Maiatzaren 18tik. 31ra. arteko bi asteren buruan, Edorta Txillida eskultore donostiarrak bere zenbait lanen erakusketa bat azalduko du Iruñean. Euskal Herrian egiten duen lehen erakusketa omen da. Daitekeena, nahiz eta guk iazko Euskal Kultur Hamabostaldian Tolosan ikus ahal izan bere zenbait obra, bai eta ezagutzeko eta hitzegiteko aukera izan ere.

OLAETA Maiatzaren 24 eta 25ean. "Ballets Olaeta" deritzan folklore talde ezagunak bi dantzaldi muntatuko ditu Bilbaoko Coliseo Albia antzokian.

Bittor eta Lide anaiarreben zuzendaritzapean ari den Olaeta Taldeak, Ameriketan zehar aurkezteko propio moldaturiko saioak azalduko ditu Bilbaon. Jakina, Euskal Herrian badugu, bai, euskal folkloreaz halako zentzu zehatz bat, badira ere euskal folklorearen ohizko muga batzuk. Olaetarrek, ordea, muga hoik gainditu izan dituzte, USA eta Canadako ikusleen aurrean ikuspegi "jantziago" bat agertu gurarik.

Orain, berriz, bilbotarrek euskal folklorearen zenbait pasarte ikus ahal izanen dute, amerikar kutsuz gatz-ozpindurik, egundainoko harrerarekin amerikarek berek ikus ahal izan zuten bezalaxe. Alderantziz, Olaeta Taldeak badu horrez gainera zenbait ballet klasiko euskal kutsuz horniturik, euskal dantzei "lapurtzen" dion jatortasuna dantza arrotzei ezarriz.

Azkenik, maiatzeko bi saio hauei bagagozkie, hilaren 24ean. "Euskal Suite" delakoa aurkeztuko da, euskal folklorearen edozenbat alderdi berezi eskainiz, eta, biharamunean, berriz, ballet klasikoari atxikiko zaio batipat, "Silfideak" (Chopin), "La boite á joujoux" (Debussy) eta "Oinkarin" (Guridi) dantzaldiak agertaraziz.

Diogun amaitzeko, bi saio hauk Segundo Olaeta zenaren omenez eratuak direla, berorrek sortu bait zuen Olaeta Taldea 1951 urtean, gaur egun haren seme-alaben zuzendaritzapean jarraitzen duena.

TOLOSAKO LIBURU AZOKAN Maiatzaren 5ean. Euskal Liburu eta Diskuren Azokaz ekin zitzaion Tolosako II Euskal ultur Hamabostadiari. Han ginen gu ere, txintxo txintxo, emazte, seme eta hirurok.

Ez zen jende askorik azoka inguruan, ez eta giro handirik ere. Behar bada lehendabiziko eguna genuelako, goiz samar ere, agian. Han ziren beste zenbaiten artean —nork bere argitaldariko liburuak zaintzen— Arantza Urretabizkaia, Luis Haranburu-Altuna, Julen Lizundia, Joseba Intxausti eta beste laupabost neska-mutil, izenez ez baditugu ezagutzen ere azoka guztietan elkar ikusten dugunok. Agur t'erdi eta gure txalorik beroena irribarrez erantzun ohi duten langile isil hoiei.

Bazen liburu berririk. Ikusi genuen lehena LUR Editorialak argitara eman berri duen liburu gorrixka bat zen: Otasuneko Alfonsoren Obraren Lehen Partea: "Euskal Berdintasuna" I. Oker ez bagaude, nonbait hartutako susmoa edo, Otasuneko Alfonso ezezagun hori nafartarra omen da. Ez bide daki euskaraz —edota nahiko menderatzen— liburuaren azalean bertan honela bait dio: "A. Urretavizcayak euskeratua eta egokitua". Euskaratu zer badakigu, "egokitu" ez, ordea, zehatz mehatz behintzat. "Tradutore traditore" esan ohi dute italiarrek. Dena den, horra hor "Euskal Berdintasuna". Hauxe hau gaia... LUR Editorialaren eskutan.

GERO Editoriala, aldiz, bere azken bolada honetako literaturagintzari jarraituz, nobela batez azaldu zitzaigun. Gatu Beltza deritza eta Txomin Peillen, Parisko xuberotar idazleak burutua da. Aspalditxodanik genekien nobela honetaz, eibartar batek egundainoko lana hartu bait du Txominen euskara apur bat errazten edota mugaz honuntza orrazten. Dagoeneko berrogeiren bat orrialde irakurri dugu. eta harian harian arretaz irakurriz gainera (41garren. orrialdean zer datorkigun pronto gaude irakurtzeko), guztiz erraz eta landua iruditu zaigu, azken aldean hiztegi bat ere lagungarri duelarik. Ederra aldea Gatu Beltza irakurri ala ITXAROPENAK argitara eman zuen Peillenen beraren Itzel Gorria. Ez da, ez, alferriko izan, Serafin Basauriren lan isil eta aspergarria.

AUSPOA Liburutegian ere bazen liburu berririk. Azken alea, 114.garrena, Kaskazuri Bertsolariari eskaini dio Aita Zabala langile nekagaitzak. Jose Joakin Urbieta Yarzabal "Kaskazuri", Oiartzungo Zurko baserrian jaio zen orain dela ehun urte, 1873 abuztuaren 25ean., aukeran datorkigu ba bero bertso zenbaiten bilduma hau.

"Kaskazuri maiorazkua izan arren, baserria utzi eta langibidez hargina genuen, nahiz eta, itxura denez, lanerako baino parrandarako jokera gehiago agertu. Errena zela ere badakigu, eta, behar bada, horretaz iharduten duten bertsoak ditugu ezagunenak, Juan Mari Lekuonak bere Bertsolari Doñuak diskuan erabat zabalduak. Segurutik, bertsook irakurri bezain laster irakurleari gogora dakioke nor zen "Kaskazuri":

Kojo gelditu nintzan, txiki-txikitandik
paretara iyo ta, erorita andik;
informe txarrak ditut gaur askorengandik
neretzat berri onik ez dator iñundik.

Beste bi liburuxka berri ere ikusi genituen. Zientzia gaiak ziren, J.R. Etxebarriak ikastoletako umeentzat bereziki eginak: Haizeak, Euria eta Klima, eta Uraren indarra. Egon, egon, bazegoen berririk gehiago, Joxe Azurmendiren Kultura Proletarioaz (Jakin) eta Juan Mari Lekuonaren Muga beroak (Gero) esate baterako, baina lehenagotik ezagutzen genituen, Tolosako Hamabostaldia baino lehenago, alegia.

Nahiko nabarmen, bestalde, zenbait editorialen hutsunea, zeren nabari zen, ez zirela han euskarazko liburu guztiak, lehen guti eta horrez gainera zenbait falta... Ezagunenen artean, behintzat, ETOR, KULISKA SORTA, EUSKALTZAINDIA eta KARDABERAZ argitaldariak falta ziren. Hutsune honen arrazoiak jakin gurarik antolatzaileengana jo genuen. Azoka arazoaz jabetu den arduradunarekin mintzo gara telefonoz, eta esan digunez, Durangoko Azokako Katalogoan agertzen diren guztiei bidali omen zaie deia, zenbaitek erantzun ere egin ez duelarik. EUSKALTZAINDIAk bere liburuak agindu omen zituen, baina, azkenean, inor antolatzailek ez dakien arrazoiren batez edo bestez, ez zen Euskaltzaindiaren batere libururik Tolosara iritxi.



Dena den, beti izaten da, bai, okerren bat, eta orain ere gertatu bide da, KARDABERAZ Bazkunari ez zitzaiola deirik bidali antolatzaileek aitortu bait dute. Nonbait ez dator bere izenbururik Durangoko liburu zerrendan, eta hara non hanka sartzea. Beti izan behar du, bai, zerbait, eta orain ere izanen da iharduna.

Gertatuak gertatu, ea noiz hasten diren Kardaberazkoek beren buru anunziatzen, guri ere berdin gertatu bait zitzaigun Durangoko Azoka aipatzean, berek ondotxo dakitenez. Eta beste esaera italiar batez amaituz, "ci non labora non fa l'amore".

OMENALDIAK Omenaldiak ugaltzen eta hedatzen ari dira azken bolada honetan Euskal Herrian zehar. Betiko leloa... euskalduna apala dela, murriztua hitzetan eta oparoa ekintzetan, batere ohore zale ez, alegia. Daitekeena, noski, nahiz eta aspalditxo honetan tradizioz kanpo dihardugula irudi. Ohore honi, ohore beste horri. Omenaldi honi, horri eta beste hari. Oroitarria sandiarentzat eta hilarria urliarentzat, edozein "soziedadetan" afaria berriz, oraindik kanposantutako harraren beldur ez diranentzat. Oraintxe hasiak gara nonbait gure ohorearen eta omenaren hautsak astintzen.

Ez dugu apirileko aldizkariak irakurri baino amaikatxo omenaldiren berri jakin ahal izateko. Iñaki Linazasoro eta Juan Garmendia langileentzat eskatu berri du Joseba Intxaustik omenaldi bat. Beste horrenbeste eskatzen du Aita Goiriak 'Lauaxeta"rentzat. Berdintsu Pelay Orozkok Aita Zabalarentzat, eta hara non eskatzen genuen guk joan zen astean Bergarako "Txara" pelotariarentzat. Eskatu ezezik, egin ere egin berri zaio Juan Garmendiari Tolosan, eta halaber eginen zaie Bilbaon Segundo Olaetari eta Eibarren "Uztapide" zaharrari. Omenaldia ere Euskaltzaindiak Gasteizen eta Sabandon Juan Bautista Gamiz idazle arabarri eskaini diona, eta ohorea azkenik Gabriel Arestiri Lur Editorialaren atarian.

Eta omenaldiei buruz bada bitxikeriaren bat edo beste, arlo guztitan izaten bait dira despistatu samarrak. Hala nola, esate baterako, Gipuzkoako Kulutr Elkarte batek aurten Azkueren ehunurtebetetzea eratzeko asmoa zuen, inork ez dakielarik oraindi, jaio eguna, heriotza ala lehen jaunartzea ospatu nahi zuen.

Beste horrenbeste gertatu bide zaio Arriandiagaren urtebetetzearen berri eman duen Urrutia'tar Gotzon M.B.S. (Miren-Bijotzeko Semia) haren ikasle leialari, Arriandiaga-tar Imanol M.B.S. hil zela aurten betetzen direla hogeita bost urte esana bait du. Oker ez bagaude **Goizparaik eta Beldubaik Egiña** deritzan liburu irakurgaitzaren egilea 1947ko. urtarrilean hil zen Nafarroako beiren. Beraz, kontuak ateratzen ahaztu ez bazaigu, aurten hogeita sei urte dira hil zela, eta iaz hogeita bost. Nonbait, iaz pasa-mixi egin zioten maisuari eta... ura joan eta presia.

Esanak esan, ez dezala inork uste gu omenaldien etsai garenik. Ez horixe! Baina gutienez uste dugu benetan, omenaldiak hildakoei eta —arlo batez zein bestez— dagoeneko gaina jo dutenei egin behar zaiela soilik. Eta ez hontaz eta hartaz kementsu ari direnei, nahiz eta merezi, omendu nahi den zeregin baliotsu hori ez bait dute oraindik bete. Ilea jaustea eta omenaldiak errezibitzea zahartzaroaren sintomak dira. Lehenak ez du konponbiderik, besteak bai, ordea.

● Omenaldiei buruzko txantxetako aipamen hau moldaturik dugula, Abel Enbeita eta Sabin Egiguren adiskideei gertatu zaien ezbeharra jakin dugu Arantza bilbotarrari esker. Abel Enbeitarari, errotik bertsolari sena datorkionari, eztarri mina agertu omen zaio, eta ez omen du gehiago kanta ahal izanen. Sabin Egigureni, berriz, dantzari fin eta trebeari, amaika sari irabazitakoari, hanka arteko "artrosis" delakoa azaldu zaio, eta horra non ez du ere urreantzean dantza egiterik izanen.

Benetan amorrugarri gerta dakioke bertsolari bati nahi eta nahi ez isildu beharra, nork bere baitan ezik, bertso gehiago paratu ezina. Halaber, dantzari arinari geldirik egon beharra, txistu eta danbolinaren eragintzari ez-entzun egin beharra. Izan ere, Arantzak ondo asko dioen bezala, ezbeharren bat etortzekotan, zergatik ez ote zaio bertsolariari hanakako mina etorri, eta dantzariari eztarrikoa? Baina, tamalez, zoria itsu da, nahiz eta zenbaitetan ezin hobeto azrtatu.

Zoritxarrez, ba, bi bizkaitar langile eta jator hauek sasoirik onenean utzi behar izan diote nork bere arduraz eta zaletasunez lantzen ziharduten arloari. Beren abiada txalogarriek ustegabeko etena izan duten une goibel honetan, lagun dizaiegun arretaz, geure esker, omen eta animoa zor bait dizkiegu, euskaldun eta gizakume bezala.

IHESIK Jaso dugu, korreoz, "Información Misional" deritzan aldizkaritxoaren bigarren alea. Maiatzaren 6an. Mixiotako Apaizen Eguna ospatzen zela eta, mixiogaiei dagokie batipat maiatzeko ale hau.

Euskarazko sailean, eta "Mixioetara joatea ez da emendik iges egitea" izenburupean, laupabost burutapen azaltzen da. Noski baino noskiago, mixiotara joatea ez dela ihes egitea, haatik, ez gatoz bat laugarren puntuak dioenarekin: "Munduko premirik aundienak Mixioetako lurraldeetan daude. Emengo gure auziak utsaren ondokoak dira, mundu zabaleko errien auzi, gose ta premien ondoan".

Eztabaidatarako lerrokada makala dugu aipatu dugun hau. Izan ere, Euskal Herria ez ote da "mundu zabalean" sartzen? Ez ate da ere "mixio-lurraldea"? Eta goserik inor hiltzen ez bada ere, ez ote dira nahiko larriak gure hauzi, 'gose" eta premiak?

Behar bada, ez hain guti ez eta horrenbeste. Dena den, martxa honetan jarraituz gero, ez dugu uste Euskal Herriak azken finean alderdi horretatik kontu askorik eman beharko duenik. Aitzitik, damurik, Euskal Herrian beti izan da kanpolarrosa asko eta etxekalte ugari.

TXINPARTAK Bizkaiko ANAITASUNA hamabosterokoan Armendaritz kazetariari irakur ahal izan diogunez, Xabier Kintanak LUR Editoriala utzi omen du. Guk ez dugu horrelakorik jakin ahal izan, baina uste dugu benetan, Armendaritzek bide ondo informaturen batez jakin ahal izanen zuela.

● Portugaleten eratu berri da zenbait "euskal" nobelagileren jendaurreko elkarrizketa bat. Han ziren Jose Maria Aresti, Rosa Maria Etxebarria, Jose A. Fernandez Serano, Julio García Llopis eta Ramiro Pinilla "euskal" nobelagileak.

Ez genuen hoien batere nobelarik Tolosako Liburu Azokan ikus ahal izan. Ez dute nobelagile hoiek idazten ala tolosarrek izan dute orain ere hanka sartzeren bat?

● Kontu kontari, atzo jakin genuen Tolosako Euskal Kultur Hamabostaldia ezkertiarra dela. Ez gara batere harritu, eranegun eskuindarra zela esan bait ziguten.

● Euskaldunok nahiko komeria egin behar izaten dugu hitzaldi kozkor baten baimena lortzeko. Eta lortzen denean, berriz, hileta joten ihardun ohi dugun ehunetik gora entzule inoiz ez delako biltzen.

Bilbaoko egunkari batetan irakur ahal izan dugunez, berriz, Eibarko Armeria Eskola delakoan hitzaldi bat eratzeko zen, Gipuzkoako Lan-inspektore den Rosendo Gonzalez Dorrego hizlari zelarik. Ez zen hitzaldirik eman, ez bait zen inor agertu!

● Oraintsuan, auto istripu batez hil da Donostian ingeles irakasle zen Heste West izeneko neskatxa bat. LA VOZ DE ESPAÑA egunkariko "Begui-Belarri" kronikalariak honako hitz hauekin bukatzen du neskatila horren heriotzaren berri ematea: "Sirvan de homenaje y despedida estas líneas a una extranjera que ha muerto lejos de su patria, pero integrada con su lugar de residencia actual: lo demuestra que Heste West estudiaba euskera".

Esan bezala, omenaldi girotan ari garenez, bihoakio ba, gure ohorea ere, West andereño argiari. Baina, ezin inolaz ere gure aste honetako aipamen hau amaitu, beste ezin besteko burutapen hau gabe: "Begui-Belarri" jauna... zu integraturik ahal zaude? Ah! Barkatu... zu ez bait zara ingelesa!

AMATIÑO

(c) Ministerio de Cultura 2005

Frantziako langileria

LANTEGIETAKO BORROKAK

Berriro ere, Renault lantegietako langileen lan-oporrak Frantzia osoa kezkatu du. Borroka honek beste lantegietako langile eta ugazaben arteko harremanen zailtasuna erakutsi du eta baita ere langileen arteko giro berri bat.

Martxoaren 21-ean hasi zen larrialdi honek zuzendaritzaren jokabide berri bat agertu du. Renault-ko zuzendaritzak halako "zabaltasunaren" ohorea bereganaturik zeukan. Beste lantegietako zuzendariak baino errazago jartzen zen mahaiaren inguruan langileen eskabideak entzun eta eztabaidatzeko. Lantegiko zuzendaritzak eta langileen ordezkariek nolabait elkar harturik Estaduaren lantegi hau produzio mailan eta langileen abantail mailan oso aurretik jarrita zeukaten.

Gazetalariak ordea, tristearen izena ezarri diote aurtengo maiatzaren lehen egunari. Zer gertatu da, beraz?

Renault lantegiak Flins-en duen etxean 25 langile kalera bota ditu eta beste 200 langile kalean jartzeko amenazoarekin lantegiratu ditu. Langileriaren ohorea arriskuan zegoela eta kaleratuak lantegiratu arte lan-oporrari eusteko alferrik jardun ziren bi sindikato nagusien eragileak. Apirilaren 26-ean, aurpegiak hilun, lantegietako ateetatik barrura pasa ziren denak.

Zuzendaritzak ez zuen bere agintea zalantzan ikusi nahi eta langileek nonbait zalantzan jarria zuten ugazabaren agintea. Taller batetako langileak aski izan ziren lantegi osoa geldierazteko. Lantegiko beste langileen burutik halako gelditze hura pasa ez zela nagusia ohartu zelarik, honek lantegia itxi zuen eta jornalik gabe utzi plantilla osoa. Zuzendaritzak beste era batera joka balu, gutxi batzuen bidez lantegia ugariagoetan geldi zitekeala eta arma indartsu bat litzakeala langileen eskabideak aurrera eramateko zioten zuzendaritzakoek.

Hain jokabide gogorrak bi iturri zituen. Bat emigratuen egoera eta bestea C.G.T. izeneko sindikatoaren jokabidea.

Renault lantegietan, 18.000-tik gora dira produzio sailean lana egiten duten langile emigratuak. Bel rak jasaiten dute lantegiko egoera zailena eta berak dira sindikatoa eta zuzendaritzaren artean egositako eltzetik apurrak soilki jasotzen dutenak. Berak dira, beraz, "ezker berriaren" ikutua errezenik hartzen dutenak. Horainartean marjinaturik ibili baldin badira, aurreraruntz begira, gauzak berdin joango direnik ez dirudi. Ministroen azken bilkuran aipatu omen zen ere, hiru urte Frantzian zeramatenak kargu sindikalak bereganatzeko eskubidea izango ote duten aurreraruntz. Marjinalizatuaren ondoan obe bait da integratutakoa.

Apirilaren 26an, aurpegiak ilun, berriro lanera...

Frantziako Alderdi Komunistak eragiten duen langileen sindikato haundienak jokabidez aldatu duela dirudi. Aldaketa honetan aspaldidanik komunistak hain berea duten oportunismoaren joera nabari da. Sindikato honek indarra duen lantegietan lehengo bide zuhurretan jarraitzen du, baina langileak aurrea hartu dioten lantegietan begi honez ikusten eta zenbaitetan bultzatzen ere hasia da langileek eratzen dituzten ekintza berriak.

Renault-eko azken larrialdi honetan oso kezkaturik gelditu da bertako zuzendaritza C.G.T.-en jokabide berri honetaz. Alderdi Komunistak ez du eragozpenik jarri aldaketa horren aurrean. Hauteskundeak pasa bait dira eta nor daki jokabide berri horretaz baliaturik hauteskundeetan bereganatu ez duen zenbait, geroan bereganatuko ez ote duen.

Renaultko zuzendariei min emen die C.G.T.-ek, lehen aldiz, kanporatutako ezkertierren alde hain bulartsu ekitea. Horren aurrean "zabal" agertzen zen zuzendari taldea itxuraz aldatu da. Langileak bildur dira hemendik aurrerakoan Renault-eko zuzendariak ere beste zenbai lantegi pribatuetako jokabidea ez ote duen hartuko: langileen bijilantzia haunditu, etxeko sindikatua eratu, mahai inguruak baztertu eta...

Egoera honetatik irtetzeko behar beharrezkoa da sindikatoak oso indartsu aurkitzea langileen artean. Nagusiei gogorkeriz erantzuteko langileen elkartasuna ezinbestekoa da. C.G.T.-ek lortu gabe du hori. Nahiz eta bere etxean izan, beldur zen besteak gainduko ez ote duten. Horainartean, gordeketan bezala ari zen zuzendaritzarekin: "Lantegiko pakea lortzen baduzu jornalak aldiro aldir igoko ditut". Baina, horaingo honetan, langileen kontrola C.G.T.-en eskuetan ez zegoela ohartu da zuzendaritza. Zuzendaritzak gogor jokatu du. C.G.T.ek jokabidez aldatu du baina ondorenak langileak jasan ditu.

Lantegi bereko C.F.D.T.-ek bidez aldatu nahi du eta ez dator bat aurrekoarekin baina beti dabil nahi eta ezin arteko zalantza horretan. Horaingo honetan ere, bi sindikatoak elkarturik jokatuko dute baino galdutakoen elkartasunez. Ezkertiarrak ere ez dira irabazle irten. Behe mailako langileen artean eta emigratuen artean indarra ez zaie falta, baina eragozpide haundiak dituzte elburu zehatz batzuak eratzeko eta hauek lortzeko bideak mugatzeko. Ondoren gogorrenak hauek jasaiten dituzte nahiz eta beti ere indarberriturik ugaritzen ari. Baina behe mailako langileak eta emigratuak ez dute zai egoterik.

Dena dela, C.G.T.-en jokabide berria irauten badu edonun sortu leizke larrialdi gogorrak Frantziako bazterretan. Baina bestea ere gerta leike eta orduan ez da giro izango Renault lantegian eta askoz ere gogorragoa beste lantegietan.

Langleriak badu zertaz kezka bere elburuetara iristeko.

D. IZA

"badator udaberria"
TRESILLOAK.....oso merke
"1973rako berri berriak"
MOD. ITALIANO 15.375 pezeta edo hilean 630
MOD. SORRENTO 22.750 pezeta edo hilean 750
MOD. SORAYA 29.550 pezeta edo hilean 950
EZ DAUZKA BESTE INORK
AMUEBLADORA COMERCIAL HISPANIA
MORAZA, 3 eta 14 an DONOSTIA
SAN MARZIAL, 12 an IRUN
ERAMAN ETA EZARRI DEBALDE GIPUZKOAN ETA NAFARROAN
askoz ere merkeago eskura ordainduz

JOSE ZINKUNEGI'REN
OPTICA BERRIA DONOSTIAN
URTIETAN LAN OIETAN OITUA
BARRUAN DANAK EUSKALDUNAK
Hernani, 4 DONOSTIA

CAM
Donosti'ko Erri-Etxe'ko Aurreski Kutxa
EUSKAL IRRATI SAIOAK
Banen baneko azikai
Ongarri ta abonoak
Belar Zuloak
Erosi edo berritzeko diru aurreratzea
Baserri, lur-tresnak ta abai
Torelavega'ko Perira joan etorriak
Baserriaren alde

zure etxea
USURBILEN
sarrera
50.000 pezetan
ordainketarako erreztasun osoz
- ATXEGA-ALDE
- Gipuzkoan urigintza egokienean
- Lareun etxe bizitza berriak
- Orain duzu etxe bizitza egokiena aukeratzeko garaia.
- Bai astelen eta ostiraletan arratsaldeko 4-6,30 an, Etxebeste Kalean, 5-2.°
- Ikus maketak aurreski kutxa probintzialaren etxean Donostiako ofizinetan ere edozein egunetan bear duzun argitasun edo informaziorik jaso zenezake.
CSG CONSTRUCTORA SOCIAL GUIPUZCOANA
AUZO-EGINTZA
Prim Kalean, 14-2 garrenean
Urrutizkiña 426906-429942
DONOSTIAN
C. A. P. n.° 106.527/3

Ez Merkenak
Bai Onenak!
Janari bidez izaten dira ganadu on, indartsuak,
Eta nora jo jakin bear du baserritar burutsuak,
Berebiziko aragi pillak; gañera esne putzuak,
Oiek guziak berekin ditu Fanderia'ko pentsuak.
FANDERIA
ERRENTERI

ZERUKO ARGIA SALTZEN DA:
ELGOIBAR
M. Gorostiza
EIBAR
Angera
Markina
Iriondo
Eguren
Gisasola
Barela
Alday
Aranburu
Estanko, 11
Isasi
Simon
Amana
Uraui
Urizar
Siglo XX

(c) Ministerio de Cultura 2005

EUSKARA NAFARROAN

«El estado del vascuence en la Provincia de Navarra» 1970

Hilabete batzuk direla ia, Nafarroako Diputazioaren «Institución Príncipe de Viana»-k argitara emandako liburu mamitsu eta interesgarria irakurberria dugu, hau da, goian agertzen den izenburuaz, bere burua euskaltzaletzat jotzen digun Granadako Jose Maria Sanchez Carrion-ek egindako azterketa. «Txepetx»-ek, hala diotsa bere buruari, euskaldun euskaltzaleok dadukagun huts baten kontra egin gura izan du bere lana, hots, gure hizkuntzak jasaten dituen egoera latza eta galerak estaltzeko ohi dugun bizioaren eta dioskunez, erdalduntze edo eta deseuskalduntzearen zioak agertzeko batez ere; beraz, gaurko hizkuntzaren defentsabideak aurkitzearren, kontuko zimentarririk oinarrizkoena benetako egoera ezagutzean datzala, hain zuzen. Ikerketa, 1970.eko udan, euskararen aztarnak dauden Nafarroako haranez haran, oinez ibiliz, hartu eta entzundako datuez egina da. Pundu batzutan ezberdinzki jo arren, 1935.ean Aingeru Irigaray Jaunak, Nafarroako euskararen egoeraz egin zuen arakatzearen oraingotze bat baino ez dela esan dezakegu.

Lana hiru partetan banatu digu; sarrera lehenean dakarrelarik, gaurko egoera bigarrenean dator, eta giltza emanaz liburuari azkeneritziak hirugarrenean.

Lehenengoan aztermethoduaz berri batzuk dakazkigu.

Euskaraz berba egiten deneko eskualdea ez da muga gogor batzuek inguraturiko hedadura zabal bat, mapa batetan gerta daitezken oliotanta edo pundu moduko zerbait baizik, eskualde horretan hiru moduz sartuz doala erdara:

a) Ohi deneko zirkin kulunkariaz.

b) Erdal eskualdeekiko harremanez.

d) Barruko pikor antzeko punduez.

Geroago, Broccari jarraituz, bizitasun gehien eta guttieneko lerroak ezartzen ditu, edo hark dioenez, galeraren bizkortasun guttien eta gehieneko lerroak, azken honetaz euskara guztiz galtzear direneko eskualdeak marratu behar ditugula, eta bigarrenaz euskara oraindinoko garaile ateratzen denekoak, bitartekoak erdarari eusten diotela gehien bat, hizkuntzabitasuna aspalditik maizter duelako Nafarroak.

Azterketa burutzeko talde batzuk egiten ditu, Irigarayarenak apur bat aldatuz:

a) Euskara besterik ez dakitenak.

b) Sasihizkuntzabidun (Pseudobilingüe) euskarazalea: eskolako erdara ezagutuz, euskaraz egiten du bakarrik. Batzuek erdaraz ulertu egiten dute, beste batzuek, ostera, egin ahal ere, berau sarriago gertatuz.

d) Hizkuntzabidun osoa.

e) Sasihizkuntzabidun erdarazalea, (b) taldekoen modura joerak aldatuta.

f) Euskal Herrian, euskararekiko zoritxarreko gehiengoa, hau da, erdaraz bakarrik beren buruak adierazten dituztenak, eta ahal soilik ere.

Lana, 145 herritan pertsonalki Sanchez-ek berak egin du bi inkestamotaz baliaturik, bata partikularra eta, orokorra bestea; bigarrena betetzeko berriemaile bi erabili ohi du: kulturaduna eta herritarra. (Ez beza inork pentsa, haatik, benetako kultura, herri kultura, herriarena ez denik baina!).

Orain, berak azterturiko herrien zerrenda eta beren egoera jarriko ditugu, ahalik ondoen berori ezagut dezagun eta zenbakien indarrez dardara gaitezen. Guk kontua erraztеko hiru taldetan banatuko dugu herrizerrenda hori, euskara «ondo», «xarto», eta «oso xarto» daudeneko herriek osatuko dituztenak, hila edo egoera berezitakoak izan ezik.

Barranka:

Burundako harana:

—Ziordia: hila.

—Oso xarto: Altsasu (badago ikastola), Olatzgoitia (badago ikastola).

—Xarto: Bakaikoa, Iturmendi.

—Urdiain: euskalduna da oso, hizkuntzaz eta beronekiko kontzientziaz.

Barranka erdikoa:

—Oso xarto: Huarte-Arakil.

—Xarto: Irañeta.

—Ondo: Arbizu, Aranoz (etorkizun ezezagunaz), Arruazu, Etxarri, Lizarrabengoa.

—Lakuntza: ondo xamar dabila bertan euskara, etorkizun ilunaz baina!

Ergoienako harana:

—Ondo: Lizarraga, Dorrau, Unanua.

Larraungo harana:

—Oso xarto: Lekunberri (badago ikastola), Mugiro.

—Ondo: Aldaz (etorkizun ilunaz), Arruiz (are etorkizun ilunagoaz), Azpiroz, Errazkin, Gorriti (Urdiainez esandakoa berresan behar dugu berriro hemen); hizkuntzabitasun oso batez: Astiz, Baraibar, Etxarri, Huitzi (etorkizun ilunaz baina!), Oderiz.

—Betelu: bizi da, hilez doala, nonbait.

Araizeko harana:

—Oso xarto: Atallo.

—Xarto: Arribe.

—Ondo: Azkarate, Gaintza, Intza, Uztegi.

Nafarroa giputzea:

—Ondo: herri guztietan benetako «euskal giroaz» bizi da. Arano, Areso, Goizueta, Leitza (badago ikastola).

Basaburua ttikia:

—Ondo: badute herri hauek kontzientzia linguistikoa. Beintza-Labaien, Erasun, Ezkurra, Saldis.

Bertizaranako artxapaizgoa:

—Oso xarto: Doneztebe.

—Xarto: Elgorriaga.

—Ondo: Aurtiz, Donamaria, Lasaga, Oiz, Sunbilla. Kontzientzia linguistikodunak: Artze, Gaztelu Urroz, Zubieta.

—Ituren: ondo xamar.

Bertizeko harana:

—Oso xarto: Oieregi.

—Xarto: Narbarte.

—Ondo: Legasa.

Bost hiriak:

—Xarto: Bidasoako Vera.

—Ondo: Aranaz, Etxalar, Igantze.

—Lesaka: ondo xamar.

Baztango harana:

—Oso xarto: Elizondo (familia bat badago guztiz euskalduna, Mariano Izetarena).

—Xarto: Irurita, Oronoz-Mugaire.

—Ondo: Almandoz (etorkizun ezezagunaz), Aniz, Arizun, Arraioz, Azpilkueta, Berroeta, Bozate, Errazu, Elbetea (etorkizun ezezagunaz), Ziga.

Hiri alderatuak:

—Ondo: Amaiur, Urdazubi, Zugarramurdi.

Belateko hegoa:

—Oso xarto: Arizu, Lantz.

—Etulain: hila.

Esteribarreko harana:

—Anozibar, Anoz, Arostegi, Gelbentzu, Gendulain, Lizaso, Erripa, Ziaurriz: hila.

—Oso xarto: Gaskue, Latasa.

Ultzamako harana:

—Larrainzar, Lizaso: hila.

—Oso xarto: Alkoz, Ilarregi, Juarbe (ia «oso xarto»).

—Ondo: Auza, Ezalburu (etorkizun ezezagunaz).

Basaburua Mayor:

—Jaben, Jaunsaras: hila.

—Oso xarto: Erbiti, Orokieta.

—Xarto: Udabe.

—Ondo: Arraras (populazio gero eta makalduagotuz doa), Beruete, Ferrerias. Garzaron (etorkizun nahiko ilunaz), Itsaso (Garzarongo kontu bera), Igoa (Arrarasko bera).

—Beramendi: xarto xamar.

Imozeko harana:

—Oso xarto: Eraso, Latasa, Urriza.

—Ondo: problema jeneral batez, despopulazioa. Etxaleku, Goldaraz, Muzkiz, Oskoz, Zarrantz.

Atezeko harana:

—Arostegi, Egillor, Erize, Zigan-da: hila.

—Xarto: Berasain, Beuntza.

Gulinako harana:

—Aginaga, Zia: hila.

Luzaide: ondo.

Orreaga: oso xarto, ia hila.

Auriz: oso xarto.

Aezkoako harana:

Abaurrea Alta, Aria, Aezkoako Villanueva: oso xarto.

—Abaurrea Baja, Garaioa, Aribe, Orbara, Orbaizeta: hila.

Saraitzuko harana:

—Oso xarto, ia guztiz hila: Ezkaroz, Itzaltzu, Jaurrieta, Otxagabia (Familia bat badago hemen ere euskalduna dena oso, Kanbra merkatariarena).

Erronkariko harana:

—Isaba, Urzainki, Uztarroz.

Eta hirugarren zatira ailegatzen garela, bere azkeneritziak azaltzen dauzkigu:

a) Erdalduntzearen zioak:

—Eskola.

—Etorkinak: kanpotik etorritako atzerritarrak.

—Faktore psikologikoak: herrietako erdaldunak, komunikabideak (irratia, telebista eta egunkaritza), garriobideen ugaltzea.

b) Euskarari eusten dioten faktoreak:

—Bakartasuna edo erdara ezezagutzea.

—Praktikotasuna.

—Hizkuntzarekiko itsaspena.

—Hizkuntzabitasuna.

—Kontzientzia linguistikoa.

d) Gaurko hizkuntzaren defentsabideak:

—Haur heziketako hizkuntzabitasuna.

—Euskararen hiritartzea, kulturatzea.

—Euskararen balio eta balorazio sozialak.

Ez dut uste, lan hau Euskararen barnebeharrei buruzkoa dela esan beharrik dagoenik; hala eta guztiz ere, behin baino gehiagotan hizkuntzaren galeren arrazoinak politikoak direla badiosku egileak ere, azken batean, nik uste, horixek dira benetako arrazoin bakarrak. Ez zaigu horrelako irakasle eskizofrenikoren bat ere falta, jakina!

Eta egiaz, lehen esan dudan moduan, lana irakurtzean dardar egin dut, guztiz zientifikoa denez gero, eta fidantzagarria beraz, Nafarroako euskararen egoera auhentsua gure musuen aurrean argi eta garbi erakutsi digulako. (Nire ahobetekoak entzun beharko lituzke batek baino gehiago, euskalduntasunaren agiriak banatzen dituztenen artekoren batzuk batez ere). Hala ere, oso atsegingarri gertatu zaigu irakurtzea bera, erabiliko erdara izan dela bide.

Ez dezagun idien aurrean orga jar baina! Politikoak badira galtzearen zioak —gura eta ahal dukenak uler beza— hala dira defentsabideak ere, hizkuntzaren salbabideak bizi gareneko systemak, bai hizkuntza bera eta albokoak ere —ez dut kategoriarik egiten—, onhar ezin ditzakeelako.

Azkenez gure «Txepetx»-ek Nafarroako erretoreek daduzkaten endrezuak aipatzen dizkigu; ez dugu guk horren kontra ezer esanen, sarri beren eragilea egiazko euskaltzaletasuna izan delako, neutroak ez izan arren; hala ere, Erramun Gerrikagoitia-rekin bat eginez hori benetako den ala ez, zalantzan jarri behar dugu, nonbait, ea ez ote den batzutan lan hori bezeroak edukitzeagatik egin, eta eduki duten arte, ikerketa berean agertzen denez.

Gure zorionak «Txepetx»-i egindako lan xalogarriagatik.

Gura izatekotan: Principe de Viana, Diputacion de Navarra. Iruiñea Nafarroa.

Andolin Eguzkitza

DEPURAGUA

DEPURACION DE AGUAS S. A.

Ur lanetan eta zereginetan berezia edangarri, lantegiko eta igeritako urak gertutzeko zikindutako urak garbitzeko.

Urrut. 32 37 00 - 31 00 10 - 32 37 01
Gordoniz, 44 BILBAO

(c) Ministerio de Cultura 2005

ZINE

Iparrameriketako zinea (VII)

NEW YORKKO ESKOLA ETA «UNDERGROUND» ZINEA

Gaurko lantxoan, eskola honen sorrera eta zinekera agertuko ditugu.

New Yorkko eskolak badu «Underground» delakoarekin zerikusia. Zerikusia soilki; loturarik duenik ezin esango dugu. Askatasunezko zinea egiteko asmotan bat datoz, nahiz bakoitzak espresio bidea era ezberdinetara erabili.

1953. urtean, «International Union of Mine, Mill and Smelter Workers» sindikatoaren diru-laguntzaz, Herbert J. Biberman eta Michel Wilson-ek, pelikula bat egin zuten: «Salt of the earth».

Langileen burruka adierazten zuen gaiak: «Delaware Zinc Co.», Silver City (New Mexico)-ko enpresan «yanki» langileak adina irabaz zezaten, bertakoek nagusiekin izandako eztabaida.

Agintarien aurka eta Iparrameriketan, kapitalismoaren bihotzean sortutako pelikula halajaina.

Bi zuzendari hauen izenak, laster asko sartu zituzten Hollywood-koek begi txarrez ikusitakoen zerrendan. Halabaina, sariak ere irabazi zituzten: Katolikoen «Legión mexicana de la decencia» adibidez.

Garai hartantxe, «New American Cinema Group» sortu zen New Yorken. (New Yorken aspalditik izan da askatasunezko zinea egiteko joera).

«Film Culture» aldizkariaren inguruan bildu ziren zine aurrerakoi zaieak, Jona Mekas zuzendari zutela.

Mekas honek, ideia agerpen sonatu bat argitara zuen 1960.an: «Arrosa usairik duen pelikularik ez dugu nahi —zion agintarien aurka—; odol usaizkoak baizik».

Zineko kapitalistengandik at ere, pelikula asko egin zen garai hartan. Askatasunez egindakoak, eta aurrerakoiak gainera.

1960.an adibidez, «Shadows» egin zuen John Cassavetes-ek, 15.000 dolar bakarrik xahutuaz. Pelikula merke eta interesgarriak egin ziari ospetsu, ezer gabe hasi ziren zinegile haiek, beren buruak antzeztuaz edo pertsonajeak beren bizitzez osatuaz.

New Yorkko eskola honek, badu aberastasunik gaiaren aldetik ikusiko dugunez: 1960.an, Shirley Clarke-k, «The connection» filma egin zuen, drogaren menpean dagoen talde baten egoera aztertuaz. Zuzendari berak, «The cool world» burutu zuen 1963. urtean, eta Gubern idazleak, Harlem-en egin den onentzat jotzen du.

Alkoholkeriaz, Lionel Rogasain-ek, «On the Bowery» egin zuen 1956. an, e.a. Orduko, Hollywood-ko indarrak, gain beheraka hasiak ziren (1960.an 156 pelikula egin zen. 1928an berriz 850), eta New Yorkko eskolak ohi zuenez, askatasunez egindako lanak, ugalduz zihoazen, lan aipagarriak egiteraino. «Jazz on tuzten. Ez apaingarri eta ez antzeza Summer's day» eta «David and Lisa» ikusi besterik ez dago.

Pacifico eta Atlantico itsasoen arteko jende asko esnarazi zuen erdi-ezkutuko eskola honek. Zine eskola honek ez bait zuen sindikato, merkatu, antzezlari sonatu, nahiz zine aretorik. Azterlaritzatik iheska zebilen beti, zine elkarteetako ilunpetan.

Isilpeko giro honetan, «Underground» zine eskola jaio zen New Yorkeko unibersidadeetan. Lur azpikoa zen, ezkutukoa, izenak adierazten duenez.

Unibersidadeetako ikasleak egiten dituzte oso osorik pelikulak. Berak zuzendari, antzezlari, apaintzaile, e.a. isilean egindako lanak gero zine elkarteetan joka ditzaten.

Poliki poliki haziz eta indarduz joan dira «Lur azpiko» talde hauek, saiaera, aurrerakoi, eta zenbait esaldi hitzetik hortzera darabiltela.

Gizarteko egitura askoren aurka jokatzen dute, eta droga, sexoa, politika, nahiz gerla dituzte ideia-iturri.

Gaur egun, irakiten dago «Underground» eskolaren arazoa, eta giro hortatik zeharo urrun ez ote gauden bildur naiz.

Dena den, berria izateagatik bakarrik ez genduke eskola bat onartu behar; baina, ezta bide berrien aztarrenik gabe ibili ere.

«Underground» eskolako lanik aipatuenak hauek dira:

Kennet Anger
«Scorpio Rising» 1962-64
Jordan Belson
«Phenomena» 1965
Bruce Conner
«Cosmic Ray» 1961
«Looking for mushrooms»
Tony Conrand
«The Flicker» 1965
Andy Warhol
«Sleep» 1963
«Chelsea girls» 1966
«Flash» 1968
«Lonesome Cowboys» 1969
«Trash» 1970

Xabier Unanue

ARTE

PICASSO ETA KONDAIRA

Mougins-en, Notre Dame de Vie bizitokian, Cannes-tik hurbil eta Vallauris-tik ez urrun, Pablo Picasso hila da, gripez gaixoturik, Apirileko goiz batetan. Betiko langilea, haur-agurea hegaldatu zaigu —haren edozein uso antzo—, jai egun batez, mugagaberantz. Hala ere, hemen geratzen zaigu haren obra, Artearen eta Gizartearen kondairan errotu museo handi bat bezala. Luze idatzi izan da artista paregabe honetaz eta idatziko ere. Nik ere, nire baztertxotik, egin nahi nioke omenaldi askatasunaren lagileari eta haren obrari, eta aldi berean, haren obrari buruz puntu batzu kritikatu. Egin nezakeen hoberena dela deritzot. Ezkila hilei jo ohi zaie (eta oraingoan, ezkila gehiegi jo diote jotzea ez zegokienek). Bizi da Picasso gure artean, eta euskaldunok «Gernika» zor diogu, haren obrarik nagusienetarikoa, funtsezkoena ez bada.

AURREKO PINTURA

Urteak dira, Picassok esan zuela planteamendu berri batekin «beste gauza bat» egin behar zela. Eta hala egin du bere bizitzan eta lanean zehar.

Kubismoak, ikusten denaren artea, jakinaren artearen ordez ipiniaz, mendeetan zetorren bide eta hari bat hautsi zuen. Errenazimenduko bankeroen idealismoak ideazko errealitate bihurtzeko ikusten denaren estudioa erabili zuen. Bainan berehala hasi ziren Behe Herri (Países Bajos) eta Europako portu guzietako burgesak errealitatearen ikuspenak eten gabe eskatzen. Horrela holandarren ideazko nagusitzaren ondoren, XIX mendeko liberalen realismo politizatua etorri zen. Realismo honen ondorio zientifikoa, positivista, impresionismoa izan zen.

MODERNISMOA ETA PICASSO

Picasso bere aitak realista eta alegorista giro (Barcelona-La Coruña) batetan hezi zuen, Restaurazioaren mintzairari zegokion giroan, eta igertzen zaio lehen obretan, Barcelonako Moncada karrikako Picasso Museoan ikus daitekeenez. Bainan Barcelonan, zorionez, katalan kultura modernoa ezagutu zizun: Rusiñol, Casas, Nonell, Gargallo. Garai hartan Rusiñol-ek Els Quatre Gats-en moldeak hautsi beharra zegoela zion. Picassok bere egin zuen eta modernista bat izan zen bere haro urdinean. Bai eta haro beltzean ere, arte primitivora hurbilduz hala nola Gauguin.

MUNDUA EZ DA ULERTU BEHAR, ALDATU BAIZIK

Pinturari eman dion gauzarik handiena zera da, symbolista haritik irtenik, artekera berri bat planteatu duela, hau da, artea ezer kontatu beharrik gabe izan zedila konstrukzio bat. Picassok horrela, artea arteagatik egiten zen garai batez baliaturik, balioa bere baitan duen obra bat, interesa ikusleak egin nahi duen gauzen obra bat sortu zuen. Symbolismoak irrazionalera jotzen zuen. Kubismoa arrazionalaren agertze bat zen. Hots, gauzak alderdi guzietatik pintatzea zen, diren direnean pintatzea eta ez gure begiek ikusten dituen bezala bakarrik. Bainan gerora, beste urrats bat egin zen: koadroa bera bihurtu gauza. Ez zen gauza bat idurikatzea, iduria bera gauza baizik. Ez zen esplikatze bat, egite bat baizik. Ez mundua hobeki ulertzea, aldatzea baizik.

RENAZIMENDUKO AZKEN MAISUA

Kubismoaren iraultzaz 70 urte geroztik, Picasso iraultzaile handitzat zaigu agertzen bai, bainan...

Pinturaren aburua arrunt aldatu zizun, bainan ez deritzagu, irauli eta hautsi zuenik deus, kondaira bi zatitan banatzeko haina bederen: «Picasso aurretik eta Picassoz geroztik». Egia esan, iduria ordez konstrukzioa egin zuen eta sensazioa ordez pentsamendua, bainan...

Picassok ez zuen artistaren eta arte-obraren kondaira-haria eten. Picasso artista bakarra, ospetsua, ongi ordaindua, genio izan da hala nola Renazimenduko eta Barrokoko maisu handiak. Haren obra ere laukian egina izan da, merkatura, bildumazaleetara, subastetara eta museoetara destinatua. Bata eta besteagatik, Picassok kubismoarekin ez zuen joera bat hautsi eta bestea hasi.

Bestalde, egungo arteak ez die haren bideei jarraitzen, baizik eta Klee, Ernets, Miró eta Duchamp bezalako baztertuetan errotzen da.

Dena delarik ere, Arte Kondaira osoan zehar, Pablo Picassoren irudiak geroa eta esannahi handiagoa du, badirudi Arte kondairaren ate-orpoa dela. Zeren eta hark, bideak ireki ez bainan itxi egin baitzituen: modernismoa, impresionismoa, kubismoa, expresionismoa. Ibiliak ditu bide horiek eta horien mila eraz mintzatu zaigu; hautamenaz ikastapen ederra eman zigun eta zenbat bide lezaken hautamen bakoitzak erakutsi zigun. Sortu baino gehiago —diote batzuek— sortzen zuten bere lagunei kopiatu egin ziela. Bainan bere buruari ez zion inoiz kopiatu, hori baitzen, berak esaten zuenez, genio bati barka ezinezko zerbait. Aitzina egin zuen beti eta oraingo munduarekin konektatzeko trebetasun eta zentzua ukan zuen, bai eta aldatzeko ere marra eta koloreetan, ia abstrakzio hutsera jo arte. Zergatik ez zen Picasso bide honetatik abiatu? Ez arbuioz eta kontrako jarreraz, baizik hark ere astia mugatua zuelako, guk bezalaxe.

ASKATASUNA

Zinez, XX mendetik ikusiz, Picassok irabazi egin du; haren ondotik, mila aventura, bilaketa, aurkikunde eta saiakera sortu baita eta artea ere ikuslearen partizipaziora, gero ezezagun horretan sar arazten gaituzten denboratasun eta espaziora ireki baita. PICASSOK ASKATASUNERAKO BAIMENA EMAN DU. Guk irakaspen hori ikastea besterik ez dugu. Eta ez dugu horretan premia txipia euskal sozio-kulturaren alorrean higitzen garenok.

EDORTA KORTADI

EUSKALTZAINDIA

JOAN BAUTISTA GAMIZ-EN OSPAKIZUNAK ARABAN

Joan Bautista Gamiz arabar olerkariaren berrehungarren urteburua gogoratuz, Euskaltzaindiak bere hileroko batzarra Gasteizen egin zuen, bere Ordezkaritzan, apirilaren 27an.

Batzarrean gai hauek erabili ziren (har-emanetakoez gainera): Denda izendegiaren azterketari buru eman zitzaion. Euskaltzaindiak onartutako Izendegi hau lehen-bai-lehen argitaratzea erabaki zen.

Aita Goikoetxea-Maiza euskaltzain laguntzaileak txosten bat irakurri zuen, Joan Bautista Gamiz-en bizitza eta idazlanei buruz.

H. Knörr jaunak beste lan bat irakurri zuen, J. Bta. Gamiz-en aditz-formak aztertuz.

Alfonso Irigoyen euskaltzain jaunak, Zigoitiako euskeratik bide hartuz, azterpen bat egin zuen honako pundu honi buruz: "Sintagma plurala deribatuetan".

Bukatzeko, Kepa Enbeita euskaltzain laguntzaileak aintzin-asmo bat irakurri zuen Urkabustaizko toki-izenei buruz.

——oOo——

Hurrengo igandean, berriz, apirilaren 29an, Sabando-ko herrixkan J. Bta. Gamiz-i gorazarre bat eskeini zitzaion.

Eguerdiko hamabietan, Meza konzelebratua euskeraz, herriko elizan, Coro Araba-k parte hartuz. Ondoren oroitarri bat agertu zen. Bertan zeuden Arabako Gobernadore, Diputazioko Lehendakari, zenbait euskaltzain, euskaltzale, Sabandoar, albo-herri eta Gasteiztik etorritako makina bat jende. Aita Goikoetxea-Maizak hitzaldi egoki bat egin zuen, arabar honen bizitza eta lanak aipatuz. Arabako Diputazioko txistulari eta dantzariek beren saioekin gorazarrezko jaialdi hura burutu zuten.

(Euskaltzaindiaren Prensa Bulegoko Agiria)

ERAMAN - EKARRI'rako
AGENCIA
Transportes A L E
EUSKAL IRRATSAIOAK
ERRI GUZTIRAKO
Urrutizkifiek: 421369 - 427726
Igarraguibre, 8 - DONOSTIA

ERLOJU ETA BITXITEGIA
Eduardo Chopeitia
Gétaria 10-Urrut. 417751-Etxekoa: 422700 - DONOSTIA

YOGUR
GURELESA
GOGOZKOENA

(c) Ministerio de Cultura 2005

eibar

Urte gutxitan Eibar asko azi da. Gaur erakusten digutenean orain dala 30 urteko Eibar, beste erri bat dalakoan izaten gera geienok, ta egitan beste erri bat da.

Gaurko Eibar, mnediari ostutako tokietan egin diran etxez betea dago. Ego erreka ere estalita aurkitzen degu ia bere bide guzian, kale zaarrak izen berri edo etxe berriak dituzte ta lengo soloetan lantegiak eraikita aurkitzen ditugu. Aurrerapen aundiak irabazi ditu gure erriak urte hauetan baina eztabaida edo garrantzi aundiko problemak ere sortu dira. Auen artean Eskola Armeriakoa.

GAUR-ek egin duan ikas-lan baten bitartez, Eibar-ek orain 37.073 lagun dituala dakigu. Eibarko alderdietan (Zona Armera deritzana) bizi diranekin batzen baditugu, danera 134.145 lagun aurkitzen gerala ateratzen degu.

Mendiz inguratutako ibar txiki baten gaudelako, lantegiak ezin dira aunditu ta auetatik batzuek Durango aldera irten bearra izan dute, beste batzuek berriz, Logroño ta Gasteiz aldera joan dira. Ta emen gure eztabaida: Ez da lantegi berririk jaio, auek utzi duten zuloa estaltzeko. Bizi geran gizarteak ta diru bearrak oso zaila egiten du lantegi berriak sortzea.

Orain bezela buru izaten jarrai dezan, Eibarko langintzak bide berriak jorratu bear ditu, ta ortarako gazteak oñarri bezela artuak ta erakutsiak izan bear dira. Auxe da Eskola Armeriak nai duana.

Zoritxarrez teknikako ikastolak, Unibersidadeko mailan, uri buruetan bakarrik daude ta gure eskola armeria, erderaz maestro de taller deritzan mailaraino bakarrik eltzen da.

Arrasaten degu irudi garbi bat egin bear genukeanaz. Kooperatiba berriak sortu dira ta auen leengo lana ikastola tekniko bat ipintzea izan da. Ikastola onek kooperatiben laguntza osoa du, zein ongi ikusi duten arrasatetarrak ikastearen bearra teknikako bideetan!

Eskola Armeriako zuzendari, Larranaga jauna, ta batzar zuzendariak oso garbi ikasten ari dira gure errian gertatzen ari dana ta mami aundia duten erabagiak artu dituzte ere, baina betiko koska, lengo, orain ta geroko mamu beldurgarria: DIRUA.

Suiza ta beste errialde aurreratuetan, mikromekanika ta kide ortako ikastolak, 1800-200 ordu egiten dituzte urtean azkenerako ta auetatik erdiak irudi ta olan. Estadoak ordaindu dezakionakin 900-1000 ordura bakarrik egiten ditu. Ikusiko dezute alde aundia dagoela Suizako ikastoletatik gure errikora. Nola ordaindu irakasleeri gainetik egin bear dituzten ordu guztiak?

Erabagi bat lantegien laguntasuna litzake. Emendik urte batzuetara, Maltzaga-Gasteiz egiten danean ta Bilbao-Behobia bukatzean, Eibar orain baino obeto geldituko da Euskalerriko uri nagusiekin ta erriekin artu emanak izateko orduan. Zein toki ederra langintzarako! Zer gertatuko ote da Eibaren ez ba dago bear bezain beste ikasitako langilerik?

Udaletxeak eta Aurrezki Kutxa ta Bankoek ere gizarteari laguntza eskeintzean, eztabaida au gogoan artu bearra dute. Aurrezki kutxa ta Bankoek lantegi berriak sortzeko diru laguntasuna ematen duten bezela, ez luteke geroko azia aaztu bear. Gizarteko lanari laguntza gogorra ematen dioten bezela, eman dute izugarrizko garrantzia duan lan bat laguntza zoragarria emateko.

Beste alde batetik, Eibar inguratzen duten erriak kontuan artu bear dute zenbat bertako semek ikasten duten Eibaren ta ezin dute artu bakarrik, emateko eginbidea ere ba dute.

Orretaz gainera, Unibersidade teknikoetan eskuzko lan gutxi erakusten zaie ikasleeri ta urte bi edo iru igaro bear izaten dira lanean ongi xamar ikasteko.

Batzar barruan, gauz guzti auek ikutu ziran. Beren eskuan dagon guzia egiteko asmoa dute ta danori laguntza gogor bat eskatzen digute. Badakigu aspertuta gaudela eskabideekin baina egingo degun guztia guretzat dala jakinean ezin degu ezetz esan, inork be ez ditu arriak bere burura jaurtitzen, ez gaitezen leenak izan. Izan edo ez izan, batasunak indarra egiten du, dano, bakoitzak gure aalmenean laguntza eskeindu daigun, guk degu azkenengo itza gure erriko etorkizunean.

Kruzeta'tar Odile

zegama

LANTEGI BERRI BAT DELA TA

Duela denbora gutxi izan dira Zegamako herrian nahiko gorabehera eta hitz-biderik aski; lantegi berri baten etorrerak zenbait buru-hauste sortu du herritarren artean Esan liteke lantegi berri baten sorrera zorionezkoa izan behar zukeela, baina berarekin ekarri ditu zoritxar eta ezbeharrik franko. Zer dela ta? Honera datorren lantegi honek Legazpian du beste zati bat, eta bertan 100 bat langile (emakumezkoak gehienak) irtenik ziren (eta oraindik kanpora botatako 80 batek beren greban jarraitzen dute). Gauza hauek ikusiz gero gure barruak ezin lasai egon; bainan denok isilik gelditu ginen, behar bada aspaldian lantegi baten zai geundelako, eta baten usaia hartzean denok konforme... nahiz eta gertatzen ari zena nahiko garbi ikusi.

Isiltasun hau hausten lehen ausartu zena herriko apaiz gaztea izan genuen, bidegabekeri hau garbi eta argi salatuz: garbi agertu zigun Legazpiako lantegi hortan gertatzen ari zena; nola han huelgan zeuden bitartean, Zegamako Papelerako pabeiloi zahar batean hasi zen lanean herriko batzuekin; nola han huelgan zeuden bitartean. Zegamatik eta beste herri batzuetatik autobus batean neska berriak eramaten zituan lantokira (garbi gelditu beza apaizak ez zuela esan lantegi hori egin ez behar zenik), eta abar, gauza mingarriak bainan egiak, askok ikusten genuen gauzak baina esatea bildur ematen zigunak. Gauza hauen berri garbi azaltzeak sortu zituan kezkak eta buruko-minak; eta laister azaldu ere mingain gaiztoak apaizaren jokabidea maxiatuz eta bere hitzak aldrebestuaz.

Ordua nibil zen norbait nahiko bizkor eta lantegi jabeak, herriko eztabaida hauetaz jabeturik eskutitz iriki bat bidali zigun. Bertan, langile grebalarien kritika zorrotz bat eginaz eta berriz sartu ziren neskeen eskubideak erabat gorde zirela adieraziaz.

Eskutitz hau irakurtzean herritar batzuk erabat sutu ziren, sermolariari erru guztiak ezarriaz. Guk ez dakigu eskutitz honen egitasuna zenbaiterainokoa izango den, baina badakigu huelgatik sartu diren neskak langile berri bezala hartu dituztela, eta baita ere makiña bat bidaliak izan direla. Halaz guztiz, orain arte mutu egon gara.

Gaurko zbadirudi, arazo batzuk gorabehera, lantegi hori aurreraka doala. Gertaeren berri ematen saiatu gara; aurrerantzean bakoitzak ikus beza nola joka.

IKASTOLA

Orain arte ez dugu Zegamako ikastolaren berri askorik eman; baina gaurkoan zerbait azaldu nahi genuke.

Badira urte batzuk ikastola hau herriaren alde lanean ari dela, eta zer aurrerapide hobeagorik herriarentzat honelako ikastetxe bat baino. Izan ere baditugu herrian ikastolaren alde gogor lanean ari direnak. Bijoazkie beraiei gure eskerrik beroenak! Halaz ere ez dira falta, alderdi guztietan bezala, azpilanean diharduen sasi-jakintsurik.

Orain, Batzorde berria aukeratu dute eta badugu bere asmo bikain eta lan egiteko gogoen berri. Ez etsi eta segi aurrera!

ERNE

zizurkil

DANTZARIAK AZPEITIAN

Diputazioak eta Euskal Dantzari Biltzarrak antolatutako konkursoan ikusitako berriak, Azpeitian: Herriko "Aratza" taldeko dantzari batzuek joan ginan eta Eibartarrak eta Debatarrak asko gustatu zitzaizkigun. Lan ona egiten ari direla esan behar. Bainan badira oso ondo iruditu ez zitzaizkigun gauzak ere.

1. Oso jende gutxi agertu zela ikuskizunera. Zergaitik? Behar bezela adierazi atzelako? Ikusten danez papera eta lapitza garesti daude propaganda piska bat egiteko. Beste alde, jendea oso otza, izan bazan futbol partidu bat, ziur gaude, sarreragatik hamar duroB kenduarren, bete egingo zela. Ez al da hori baino beharrezkoagoa dantza? Ez al da euskal folklorearen zatia? Edo nun bizi gera?

2. Azpeitiako taldean gure iritziz, ez dabil oso bide onetik. Egiten ari geran lana lurperatzea dela dirudi, dantzak bildu eta komeni zaigun bezela aldatu, Azpeitiako monjak erakutsitako taldeak egin zuan bezela. Dantza, dantza bezela, ondo dantzatzen dute baina dantzao hoiek ez dira horrela, aldatu egin dituzte eta gainontzekoan alferrik ari gera detalle guziaren bila, gero hori egitekotan.

ORDIZIAKO BILLAFRANKARA

Esandako konkurso barruan dagokigunez Maiatzaren 19an, larunbatez, Ordizian dantzatzea egokitzen zaigu. Beraz, han izango gera talde osoa arratsaldeko 5etan.

Joxe eta Joxe

bermeo

ITSAS ARRANTZA

Apirillean, benetan emokorra izan san itsasoa. Kantauriko arrain kalak, bisigu, lebatz eta zelan ez antxoa ere, ugari ekarri ebien Bermeoko portu edo nasara. Arrantzalearen Anaidi edo Kofradiako oiu adarra, deika ibilli zan goiz eta arratsalde arrain erosleari. Dakarrela arraiña ugari erria.

Otzaratxu bat, otzaratxu bi,
Arraña dator portura beti.
Besigu, lebatz bokart eta xardin
Txitxarro eta berdelakin.

ERRI LANGINTZA KUTXAKOAK

Apirillaren 28an, uri onetako Ertzilla batzokian «Caja Laboral Popular» izena duen batzordekoak izan ziran, etxe onen diru ipinlariei diru zertzeladaren argitasuna emoteko asmoz. Eta batera, alkar izketa onuragarri batzuk sortu maaikideak bazkideekin. Ederto egoan egikera guztia. Ganera batzar onetara etorri ziran emakume-gizonei, bezusa edo erregalu polit bana emon eutsien sarreran. Arratsalde zoragarri bat igaro genduen bertan, Zelaya jaunaren auspo soiñu eta dantzak ikusten. Zorionak.

BOST ARRANTZALE ITO

Aurtengo antxoa aldian, eta une laburrean, ez biar batzuk izan dabez itsas langilleak. Ara ontzi eta itxuaren izenak.

ANGEL DEL MAR, bermeotarra; bere batelera jatziten duala, jautzi zan uretara eta ito, Joseba Piñeiro Bajeneta, Mundakar mutil gaztea.

AGOSARE, montañitarra; Florentino Fernandez Marques gaztea ere, laprast egin da itsasora jautsi zan portu ondoan, eta ito. Gaxo au Luarkatarra san.

MONTE ARBALLU, bermeotarra; Joseba Koldobika Bilbao Arketa mutil lerdena, ontzi lanean ebillela jautsi zan itsasora, eta bere gorputza ondinokarren ez dabe aurkitu. Bere gogo aldezko illetak, astelenez, mayatzeren 7an izan ziran. Ostetza aundia batu zan elizan.

DANIEL ITURRIOZ, bermeotarra, baiña Aviles portutik arrantzan dabillena. Joseba Koldobika Cortes Gonzalez, mariñela, leorretik ontzirantza duala, jautsi zan uretara portu barruan eta ito. Ordu gitxi barru atera ebien bere gorpua.

AZULON, Algorta-Getxo-ko jolas ontzian lanean ebillela, Andoni Azpeitia Goyenetxea lemazaiñ gazte eta zuurra, jautsi zan uretara eta amaboskarren egunean atera ebien bere gorputza urpeko ugerlari batek. Senideak bermeoratu ebien eta emeko illobian lurperatu.

Bost dira gazteak euron bizitzagaz ordaindu ebiena kantauri itsasoari zorra. Kresaletan emon dabe euron azken arnasa. Goyan begoz.

Andoni Azpeitiaren senidea benetan zoritxartua izan zan guda madarikatu aldian. Bilbao-ko uri nagusia galdu baiño seit bat egun aurrerago jaio zan. Ordu larriak bere ama kutunarentzako. Ama Birjiñaren antzera ibilli zan, emakume au, erri batetik bestera, erbestean, bere biotzeko umetxua besoetan ebala Bake Donearen billa. Bere aita Emilio Azpeitia, BIZKAIA guda ontziko mariñela zan. Gizon bulartsu eta jatorra. Euskal Erria galdu ondoren, Inglaterra eta Frantzi aldean, umezurtz, laguntasun barik ibilli ondoren geixotu zan, eta Burdeosen erbestean il. Gaur bere gorputzak Bayonan dauka betiko Bakea. Auxe da maitasun ezaren itsutasuna. NEGARRA.

URKIDI

(c) Ministerio de Cultura 2005

azkoitia

EUSKERA

Ikaratzekoak eta harritzekoak noski, Larresorok Z. Argiako 527. alean euskerari bunruz azaldu zizkigun zenbakiak. Benetan gure hizkuntzaren egoera honetaz jabetzen bagara ezin dezakegu inolako moduz anitz euskaldunen jokaera onartu. Hots, ezin dizaiokegu amor eman euskara pitxi dotore bat bezala gorde nahi dutenen jokabideari edo eta haurrekin bakarrik hitzegiteko erabiltzen dutenen joerari, ez eta ere euskara batuaren aurka daudenen azterketari. Euskara gure izatearen zati bat dugunez gero, gure kultura eta gure bideak desarroilatzeko tresna bat izan behar du eta hori izan dedin ahalegindu behar dugu. Garaia dugu umekeriak alde batera utzi eta behar den bezala bideak urratzen hasteko, zeren bestela gauerdiko auntzaren pare izanen bai dira gure ekintza guziak.

ALFABETATZEA

Urtero bezala aurten ere eman zaio hasera, euskal alfabetatzeari. Ikastaro hau Euskaltzaindiaren babesean eratzen da hain zuzen. Euskal Herri osoan gaitza izango da Azkoitian hainbat euskeraz mintzatzen den herri bat bilatzea. Azkoitiar orok hitzegiten dugu euskaraz. Bainan hitzegitea ez ezik idazten eta irakurtzen jakitea ere komeni zaigu eta ikas dezagun hor dugu alfabetatzea. Saia gaitezen bada gure hizkuntzan idazten eta irakurtzen ikasten.

TXINPARTAK

pasaia donibane

IKASTOLETAKO IRAKASLEAK

Ikastolak loratzen eta zabaltzen ari diren neurrian, era berean hedatzen ari zaizkigu arazoak eta buruhausteak.

Egun, ikastolek duten buruhauste premiazkoenetako bat, ekonomiazkoa dugu. Gogoan izan dezagun, ikastolek ez dutela, eskola Nazionalak bezela, ez Estaduko diru laguntzarik, ezta legeen babesik ere. Premia gorrian bizi dira gure ikastolak! Umezurtz!

Hala eta guztiz ere, ekonomiazko arazoa edo problema hala-nola konpontzen dugu. Honek ez du esan nahi, diru arazoa gainditua dugunik. Gutxiagorik ere!; baina... aurrera goaz.

Ni, egia esan, gehien-gehienbat kezkatzen nauena eta loa lapurtzen didana, zera da: euskal irakasleen (profesoreen) urritasuna, gutxitasuna. Izan ere, azkeneko bolara hontan, ikastolan buru-belarri sartuak daudenekin mintzatu izan naizen bakoitzean, premia nagusienetako bat irakaslearena izan da. Zaila, benetan zaila da, euskaraz dakien irakasle tituludun bat arkitzea. «Hi, datorren ikastarorako irakasle bat behar diagu geure herriko ikastolarako» norbaiti galdetzerakoan, aurki erantzungo dizute «beroiek ere irakasle baten premia gorrian daudela». Bai arazo gordina hauxe!

Lerro hauek, ordea, ez ditugu inor asaldatzeko eta kezkatzeko asmoz idazten; baizik eta gauzak bere errealidadean denok ikusteko. Izan ere, geure euskal problemen aurrean, gogorki eta kemenki jokatu behar dugu, burua makurtu gabe.

Honela ari zaigu, dakigunez, Gipuzkoako Ikastolako Elkartea, arazo honi ahal duen garrantzia emanaz, jo-ta-ke lanean, soluzio bidean jarri nahian.

Elkartea zure eta nere laguntzaren zai dugu. Ez dizaiogula gure laguntzarik uka!

BAKAILOTAKO BAPOREAK

Aurtengo lehendabiziko bakailotako bi parejak sartu dira, direla egun batzuk. Hoietako bat, zoritxarrez, aberiarekin. Bakailo gutxi ekarri dute egon diren hilabetetarako. Hala eta guziz, bapore hauek bakarrik gaizki ibili balira, gaitzerdi; zeren, Terranobatik datozen oihartzunak ez bai dira onak, hots, oso gutxi harrapatzen ari direla han dauden bapore gehienak. Egia ote? Guk, zin-zinez dizuegu, zurrumurru hau gezurra izatea nahi genuke; izan ere, kalte handia ekarriko bai luke bakailo arrantzatik bizi diren hainbat familiarentzat.

LANGILE ARAZOAK

Denok dakigunez, aurreko hilabeteetan, lan-uzteak zirela-eta, langile zenbait kaleratuak izatea ondoren negargarria ekarri zuen.

Orain berriz, hoietako langile batzuek, juiziora jo dute. Lerro hauek idazten ari geralarik, ez dakigu nola amaitua edo bukatua izan den juizio hau.

UMEEN IBILIALDI NEURTUA

ITSAS-MENDI mendizale Elkarteak antolatu eta, Maiatzaren 20-rako, umeentzat ibilialdi Neurtua ospatuko da. Hiru ordu gutxi gorabehera iraungo omen du.

Elkartetik edo Soziedadetik abiaturik, kalaburtza, bitxintxola, Elenaren baserrian gosaria, Lezo aldera jetxi eta berriro Puzka-zaharreta eta Larrabide baserritik igaroaz, herriko plazan amaituko da.

Izen-deiturak Elkarte bertan eman ditezke eta baita ibilialdi hasieraren aurretik ere.

Iñalurretak

mutriku

YON JAUNAREN ALDE

Apirrillaren 5ean bete ziran bi urte, Beristain Pikertar Yon apaiz jaun agurgarri ura gure artetik betirako aldendu zala. Apaiz on, bu rutsu eta apala. Igaro zan igandez, Andr Mari Jasokundearen Eleiz Nagusian izan zan bere bigarren urteburuko meza. Asko eta asko ziran bere eleizkizunetara eldu ziranak. Garbiro ikusi zan, erritarren artean, zenbaterañoko maitasuna zor zioten. Ain jatorra zan! Orregatik eskatzen zaie bere lagun eta adiskide ziran guziei, zuzen dizaizkiotela beren otoitzak, aaztu ezin degun YON zanaren arimaren alde.

URREZKO EZTAIAK

Maiatzaren 6an, ospatu zuten beren ezkontza bizitzako berrogeita amargarren urtea, gure errian ain ezagun diran Maiz Astigarragatar Eusebio eta bere emazte Uriguen Mendibetar Mariak. OKELAR baserriko jaun-andreak. Zarata gutxirekin, bainan ondo ospatu ere. Kristau oitura onari dagokion bezela, eguardian, Kristo Kalbariokoaren ermitan meza, eta ondoren OKELAR baserrian, beren seme-alabak, billobatxoak eta senidez inguraturik, sendi arteko bazkaria. Entzutekoak omen ziran Modesto Okelar-ek bere gurasoei abestu zizkien bertsoak. Ez nau batere arritzen. Modestok bertsotarako eten gabeko iturria duela ondotxo dakigu. Zorionik beroenak OKELAR-ko etxejaun ta etxeko-andreari, eta berdin senide guziei.

GURASOEN BATZAR NAGUSIA

Gurasoen Elkarteak, gure eziketaren bearrak azterturik, lan on eta aundiak egiteko asmo beroak artu dituzte, batez ere guraso eziketari buruz. Gai onek bultzatuta, aremanetan jarriak dira, jaun ikastun batzuekin, itzaldien egitarau edo programa bat landuaz. Itzaldi auek gurasoentzat bakarrik izango dira. Beraz gurasoen azken batzarrean erabaki bezela, batzarraldi oiei igaro zan ostiralean, gaueko bederatzi terditan Eleiz nagusiko sakristian asiera eman zitzaion. Batzarraldietan erabilliko diran gaiak, auek dira.

1) Gizarte aldakuntza eta eziketa.
2) Eziketaren elburuak, gaur.
3) Eziketa askea.
4) Aurren erlijio eziketa.
5) Aurren sikolojia aurrerabidearen azterketa.
6) Izaeraren ezagutze eta eziketa.
7) Nola eman seksu eziketa.
8) Gurasoen arazo eta erantzun-bear edo erresponsabilidadea.
9) Eziketaren arazo irakaspidezkoa.

Gurasoak: aal dezuten guziak saia zaitezte batzar oietara joaten, denen onerako baita.

ERIOTZA

Esaera zaarrak dio: «Gutxien uste danian, gurutzea atarian». Egia da. Estados Unidosko Iurraldean, Idahon, eguneroko lanean arkitzen zalarik, bat-bateko eriotza arkitu zuen Elezgarai Urangatar Imanol «Santukok». 41 urteko gizon jator eta zintzoa. G. B. Ar bitzate bere emazte Miren, seme-alabatxoek eta ostantzeko senide guziek gure samiñ-agurra.

Maiatzaren 10ean, il zan, Mendiguren Arruabarrena-tar Austin arrantzale zintzoa ere. Bere emazte eta sendi guztiari gure samin-agurra agertzen diegu.

ONGI ETORRI

Sei illabetetarako oporraldiak Venezuelan, senide artean igaro ondoren, ostera emen agurtu ditugu Egurbidetar Antonio eta bere emazte Belaustegitar Juanita.

Emen agurtu degu baita ZERUKO ARGIA-ko idazle ospetsu dan Mikel Ugalde ere. Naibeste antxua jan naibadezu, ortarako garaia oraintxe dezu.

URTEBETETZEA

Maiatzaren 10ean, bere urtebetetze eguna ospatu zuen, emen, ZERUKO ARGIAren arduradun dan Andonegi Sustaetatar Lorek. Zorionak biotzez.

ANDONEGI

lazkao-mendi

GURE INGURUKO ARAZO BATZUK

Guziok dakigunez badugu Lazkao-mendin etxe bat, garai batean ikastetxe izandakoa eta aspalditxoan hutsik, edo ezeren eginkizunik gabe dagoena.

Ikusten dan bezela egoera tamalgarrian arkitzen da, eta hau horrela ikusirik nahi genduke azaldu zer egin daiteken gure ikastetxe honekin.

Gure ustez ikastetxe hori guretzat izatea edo betirako galtzea Lazkaomendiko guztion baitan dago.

Gure ardura falta handi bat nabaritzen da oraingoz behintzat, eta gauzak nola ez diran berak bakarrik etortzen, hau ere galtzera doakigu ez bagara arduratzen.

Norbaitzuek galde dezakete zertarako dugun ikastetxe hori. Erantzuna oso erreza da: herri gehienetan duten bezala guk ere behar genduke gure beharretarako biltoki bat, nola gazteentzat hala helduentzat, eta zergatik ez gure haurtxoentzat, hain bakarti eta baztertuak arkitzen bai dira, ez jolas-toki ez eta heurak bizi dituzten zenbait arazoen erantzunik bertako heldugoen aldetik.

Baita nekazarioi hain beharrezko zaizkiqun zenbait arazo aztertzeko biltokia ere.

Hauek eta beste zenbait arazo behar den lekua azaltzea izan diteke nahiko arrazoi ikastetxe hori gureganatzako.

Ezer egin nahi badugu nork lagundua arkituko dugu eta lehenbait lehen saia gaitezen arazo hau argitzen, bestela haizeak daramake laster gure ikastetxea.

OTO ETA POTOTOK

andoain

"Santa Krutz" jaialdiei bukaera emanaz, datorren igandean, hilak 13, izango dire batel arraunketen bigarren saioak. Kirol mota hau, beste euskal kirolak bezala, ez da gurea; arrotza bide da. Pilota saioak ez dira guk asmatuak, haga jaurtiketak eztare; lasterketak, harri jasotzeak, haizkora saioak, idi demak, ez dira guk asmaturikoak!

Guk zer egin dugu bada? Beti bestek egindakoa jan? Euskaldunok horren mokoloak ote ginen? Euskaldunok beti izan dugu itsasoa gure adiskide, lagun eta baita bizipide iturri ere; batzuetan aurkari ere bai agian. Oraingo itsasontzi edo batelak guk ez ditugula sortu? Agian ez. Baina gure euskaldun zaharrei ez dut uste inork irakatsi zienik itsasora zuhaitz gerria jaurti eta hari eskuekin edo adaki batekin atzera naiz aurrera bulkatzen. Arraunean ere arrotzak irakatsi ote ziguten? Batelak nun nahi izango dira baina txapelketak ez; gure herri hontan txapelketak izaten direla hamazazpi urte badira. Baina egia esan, badugu lotsagarririk Aindoaindarrok; Aindoaingo estropadaririk ez azaltzea! Urte batzuk direla, Aindoainen, batela bagenuen eta gazteek saiatzen ziren; orain, urak eman zuela edo eta batelik ez dugu eta arraunlaririk ere ez. Txapelketetan ez da Aindoaingo batelik agertzen. Noiz izanen dugu gure batel bat? Edo bi? Behar bai!

Kirol gaietan, herriko-etxekoak ez dute behin ere zaletasunik azaldu, hogeita hamazazpi urte hauetan; ez saiatu ez bulkatu ez sortu ez lgundu eta ezer ez. Beti horrela jokatu behar ote dugu?

Donibane jaiak ere alboan ditugu; jai hoietarako, Erro jaunari omenaldia egiteko asmoak darabiltzkite. Merezi zuela uste dut. Andoainen izan dira beste gizaki ospetsuak baina erdi ahantzirik dauzkagunak; Herriaren gogora ekartzeari bidezkoa deritzat. Bere garaia etortzen danean agerian jarriko ditugu edo jarri nahi ditugu. Orkaiztegi dela, Huizi dela, Olariaga dela, Larreta dela edo Legarra-Etxebeste dela. Apurka apurka, hoien bizi-kondaira agerian ipini nahi genduke eta Jainkoa lagun, eginen dugu. Eta omenaldiek direla eta noiz egin behar ote diogu omenaldi berezia gure artean bizi eta ia andoaindar dugun LEKUONA MANUEL jaunari. Ez al diogu sarigarri hori opa behar? Edo hil da gero salda beroa? Ez gaitean kalderrak izan!

BINGEN

bazkari onaren zanpagarria
eta txarraren estalgarria

LA CASA DEL CAFE
Juan Friondo
San Marzial, 19 - Urrut. 413801
Donostia

irakurleak mintzo

PELOTA VASCA

Euskal herriko egoera ez da oso normala, edo agian sobera normala. Gatazka gaitza darabilkigu aspaldi hontan ikastolak, politika eta abar direla bide.

Betiko leloa da. Zerbait egiten duenaz gaizki hitz egin. Baina bada hemen beste alderdi asko, astin aldi baten beharrean. Esate baterako deporteak, desmitifikatze behar gorri gorrian daude. Eta batez ere euskal deporteak, eta horren barnean pilota edo «pelota vasca» delakoa. Zeren jende askok uste du deporte horrekin euskaldungoa egiten ari direla, eta ikusten dugunez erdalkeria besterik ez da egiten. Izenak adierazten duen bezela erdaldun deportea bilakatu bait da.

Irakurle, ohartu zara zer giro dagoen pilota gauzetan? Danak erderaz, pilotari, empresario, kronista... Dana erderaz, anjelus ez beste eta hau folklorekeriaz eta euskaldunok kontent geldi gaitezen.

Eta zer esan erdal egunkari edo diarioetako, euskal izena duten kronistetaz?

Orain arte beintzat ez da ageri iñon beren euskalzaletasuna. Beti ñiki ñaka. Giputxek napartarrez hau. Napartarrak bizkaitarrez bestea. Beti berdin dihardute.

Mundu guziak irabazten du deporte honekin. Euskal herriak ez besteak. Estaduak beste gauza askoren artean, zergak biltzen ditu. Ayuntamentuek ere aski sos bereganatzen dute. Eta empresarioek? eta pilotariek? Jakina irabazteko eta bizi ahal izateko dihardute.

Anormal, subnormal zaharren asiloek eta abarrek ere zerbait ateratzen dute, beren alde egiten dituzten festibaletan.

Dirudienez, gu, euskaldunok arras normaltzat gauzkate. Eta pilotari eta beste guzi hoiek ez dakite oraindik mundu guziak jakin behar lukena. Euskal herria baino herri analfabetoagoa eta txiroagoa bilatzen, lanak direla.

Ehunendako zenbatek dakite beren mintzairan idazten eta irakurtzen? Angolan ere ehunendako gehiago omen da.

Eta txirotasunaz, zer esan? Ez al duzu ikusi mutil eta neska gazteak eskean? Ikastola edo aldizkari edo alfabetatze kanpaina dela edo...

Herri eskalari bat gara, eta gero pilotarien ikusteko hogei duro xahutu noiz nahi, deus espero gabe haiengandik.

Pilotarien beste alderdi batez ere zerbait esan nahi nuke. Non jokatzen da pilotan? eta nork eta nondik gidatzen dute deporte hau? Danok ba al dakigu non jokatzen den, eta nortzuk diren federazioko gizonak?

Oraintxe bertan zer egin dezakete euskal herriaren alde? Adibidez, euskeraz mintza beti, festibalak muntatu ikastolen laguntzeko, kronistek euskal giro gehixago jarri beren lanetan eta ñiki ñakak alde batera utzi.

TXURDANE

BLAS DE LEZO
ETXE ONTAN DAUZKAZU SAGARDO, ARDO GAIN-GAINEKOAK ETA EDARI GUZTIETATIK
Blas de Lezo Kalea, 6
Urrutizidiña: 41 29 65
DONOSTIA

(c) Ministerio de Cultura 2005

markina

GURE UMEAK POZIK

Nagusiok dana bearrean eta betozkoaz gabiltzan bitartean, umeak beti alai. Poztasuna sarkorra da, eta areen inguruan gabiltzanontzat ere zorion pizka bat izaten da.

Maiatz onen 20 eta 27-an, leenengo Jaunartzeak izango ditugu Markiñan. Zorionak biotzez leenengoz Jaunartuko daben ume ta etxekoei!

Euskaldun eta erdeldunen artean eztabaidarik ez da izan aurten, dirudianez. Bakez eratu da guztia. Euskaldunak 20-an eta erdeldunak 27-an izango dabe Jaunartze-eguna.

Eliz-ikastetxean, E.G.B. amaitzen dabenerako, umeak, aundi-aundika bada ere, Euskalerria ezagutzea nai da. Ori dala-ta, mailla bakoitzerako joan-etorri batzuk eratu dira Euskalerritik zear. Azkenengo mailla bietan, mugaz andiko Euskalerritik eta bi edo iru egun iraungo daben ibillaldiak.

Barri oneek eta ikastaroa azkenetan ia-ia mende artuta dagoala jakiteak, poztu egiten ditu gure umeak.

ETXEAN ENTZUNA

Markiñan aalegin aundiz diardue batzuk —ez askok zoritxarrez— umeak euskalgiroan azi ta ezitzen. Ikastolan asi, eliz-ikastetxean jarraituaz eta gau-eskolen laguntzaz, orretan gabiltza aspaldion. Baiña umeak ikastolara bialtzeaz dana eginda ete dago? Ez. Ikastoletan, etxeko laguntza barik ez dago aurrerapen aundirik egiterik. Au edozeiñek daki. «Umeen zentzuna etxean entzuna» diño esaera zaarrak; eta egi-egia da. Askoren aldetik ez da emen erantzun onik agiri. Alperrik da ukatzea, umeak eurak agertzen dabe argi ta garbi etxeko giroa-ta. Gure erriko zelai ta kaleetan, aurrerapen aundiak egin arren, oraindiño erdera da garaille. Umeak, artutakoa agertzen dau. Adiñekoengandik artutakoa; esaera zaarrak diñoanez, etxean entzuna batez ere. Zer entzuten dabe Markiñako umeak etxean? Mingaiñez euskaltzale diran askok, maite ete dabe Euskalerria benetan?...

DATORREN IKASTAROA

Datorren ikastarorako, estaduaren eskola barriak egiñak egongo dira, bear-bada. Guk, egia esan, eskola orreen bildur pizka bat badogu. Geuk bear ditugun urak beste errota orretarako bidea artuko ate daben...onetaz zurru-murru batzuk entzun ditugu. Orduan erakutsi bearko dabe Markiñako gurasoak euren euskalnortasuna. Umeak ordu batzutarako etxetik kentzea bakarrik nai dabenak, jakiña, estaduko eskola barrietara joko dabe. Eta besteak zer?...

Euskaeraren etorkizuna gurasoak darabillela jokoan, uste dot. Une larri batean aurkituko gara datorren ikastaroaren asieran. Estaduaren eskola aundi orreek, euskeraren illerri biurtu daitekez, eta erdel-kabi. Beraz ernai egon, gurasook!...

ZUGAITZ-TXAPELKETA

Igaz, aldi onetan, Baserri-txapelketa eratu eban «ZERUTXU» Alkarteak. Aurten, umeak piñua ta igali-zugaitzak baiño ia ez dituela ezagutzen-eta, txapelketa au eratu dogu.

9-tik 14 urtera bitartean dabiltzanentzat pentsatu da, ta iru mailla tan banaturik egongo dira umeak euren adiña kontuan izanik.

Adar txiki bat agertu bear dabe, izena txarteltxo baten adarretik dindilizka dala. Txapelketa onetan, ZUGAITZ eta ABETXUAK onartzen dira. Ez ostera, larra, sasi, ote, giñerra ta beste bedarkiak.

Sari-banaketa Urregarai-ko zelaian izango da San Joan egunez. Zelaian, jaialdi ederra ta jolasak izango ditugu. Ea bada, umeok, Markiña aldeko mendibasoak ondo arakatzen dituzuen.

ZERUTXU ALKARTEA

idiazabal

HITZALDIAK

Aspaldiko urte hoetan era hontako jokabideak asko izan ez badira ere oraingoan aitor dezakegu Goierriko hiru herrik bata besteren pike eta ezin ikusiak alde batera utzirik eta jator alkarturik antolatu dituztela hiru hitzaldi aipagarri.

Lerro hauek argitaratzerako hitzaldiak emanak izango dira baiña gertaera bikaiñ honen aurrean ez genduke nahi isilik jarraitu. Zegama, Segura eta Idiazabalgo ikastola batzordeek eratu dituzten hitzaldiak hoetxek izan dira: Zegaman Maiatzaren 3an: Haurren Psikolojia eta irakaskintza. Seguran, Maiatzaren 10 ean: Haurren arazoa. Idiazabalen, Maiatzaren hamazazpian: Gurasoak eta haurren jokabidea.

Zer esanik ez degu gai hoen garrantziari begiratu ezkero, eta oraindik gehiago hitzaldiak eman behar dituanaren balioa jakiñik; bera Aita Goena ospetsua.

Bagenduan garaia askotan herri txikiak bata bestearekin izan ohi dituzten txikikeriak alde batera utzi eta zerbait osagarria egiten hasteko. Ikasgai ederra eman digu herri hoetako ikastola batzordeak eta jarrai dezagun aurrera bide eder hontatik.

AXARI

VIII UMEEN EUSKAL JAIA EIBARREN

MAIATZAREN 22an. - ASTEARTEA

Arratsaldeko 8tan., S.C.R. Arrate elkartean, hitzaldia.
Hizlari: Anjel Lertxundi.
Gaia: Haur heziketaz.
1. Haurra: Bere nortasun eta ingurua.
Haurraren eskubideak.
Nazioarteko giza-eskubideak eta haurra.
2. Haurra eta sendia: Harremanak.
Gurasoen betebeharrak.
Haurraren arazo nagusienak.
3. Haurra eta gizartea: Harremanak.
Gizartearen betebeharrak.
Haurraren arazo nagusienak.

MAIATZAREN 23an. - ASTEAZKENA

Arratsaldeko 8tan., S.C.R. Arrate elkartean, hitzaldia.
Hizlari: Mikel Urkola.
Gaia: Haur sikologiaz.
—Haurra eta sikologia.
—Haurraren okerkeria.
—Haurra eta sexoa.
—Haurra eta gizartea.
—Haur jolasak eta beren esangura.

MAIATZAREN 24ean. - OSTEGUNA

Arratsaldeko 8tan., S.C.R. Arrate elkartean, jendaurreko elkarrizketa.
Gaia: Eibarko Ikastolaren Azterketa.
Mahaia: Mogel Ikastolako haurren guraso, andereño, irakasle eta arduradunak, Imanol Laspiurren zuzendaritzapean.
—E.G.B. delakoa eta Mogel Ikastolako egoera.
—Asmoak eta posibilitateak.
—Irakaskintza.
—Elkarrizketa.

MAIATZAREN 25ean. - OSTIRALA

Iluntziko 7 eta 10etan., S.C.R. Arrateko Zineman:

NAFARROA: LAU HAROAK

Caro Baroja anaien filma hau etnografiazko bilduma paregabe bat da. Nafarroako ohitura zahar, esku-langintza eta folklorearen arlorik berezienak agertzen ditu, erdi galduak, galzorian edo laster galtzeko arrixkuan daudenak batez ere: Erronkariko gaztagintza, Ezkako almadiak, Leitzeko haizkoragileak, Iturengo "yoaleak", abarkagintza, kaikuak, mutil-dantza etab.

Filma hau dokumentu hutsa da, batere argumenturik gabe, eta honetan datza, hain zuzen, bere baliorik nabariena, dokumentu soil bat baino ez dela alegia, bi ordu eta erdiren buruan agertzen diren irudi, gertakizun eta ikuspegiak edozein hitz eta azalpen baino esankorragoak bait dira.

MAIATZAREN 26an. - LARUNBATA

Arratsaldeko 4etan., S.C.R. Arrateko Zineman:

GIÑOLA ETA FILMAK HAURRENTZAT

MAIATZAREN 27an. - IGANDEA

Goizeko 9'30etan. Arrate Haur Txistulari Taldearen kalejira.

11'30etan.. Astelena Frontoian, UZTAPIDERI OMENALDIA.

Mattin, Basarri, Mugartegi, Lizaso, Lazkano, Agirre, eta Arozamen bertsolari guztiz ezagunak Eibarren bilduko dira egun honetan, Jose Mari Iriondoren zuzendaritzapean.

UZTAPIDE amaika urtetan etorri izan zaigu Eibarrera, San Pedro jaietan. Aspaldi zor zitzaion omenaldi hau, eta hona hemen, azkenik, eibartarren esker ona.

Eguerdiko 2'30etan. omenaldi bazkaria Kerizpe elkartean.

MAIATZAREN 29an. - ASTEARTEA

Arratsaldeko 8tan., S.C.R. Arrate elkartean, hitzaldia.
Hizlari: Jose Maria Satrustegi
Gaia: Euskal Izendegiaz
—Orain arteko euskal izendegiak.
—Legearen mugak.
—Artxibo eta agiri zaharrak. Izen azterketa eta bilduma.
—Euskal Izendegi berria. Bere balio eta praktikotasuna.

MAIATZAREN 30ean. - ASTEAZKENA

Gaueko 10etan., S.C.R. Arrate elkartean, KOSKA taldearen musika saioa.

MAIATZAREN 31an. - OSTEGUNA

Goizeko 11'30etan., S.C.R. Arrate elkartean, Deba ibarreko zenbait ikastolaren antzerki saioak.

Ordu eta toki berean, Eibarko ikastetxe guztietako haurren kantaldiak.

Antzerki eta kanta saioz osaturiko jaialdi hau guztiz haurrek eta haurrentzat egina izango da.

12'30etan. Debako Arte Lantokien agerketa, S.C.R. Arrateko erakustokian.

EKAINAREN 1ean. - OSTIRALA

Arratsaldeko 8tan., S.C.R. Arrate elkartean, hitsaldia.
Hizlari: Jose Maria Larramendi
Gaia: Haurra eta artegintza.
—Haur pintura. Gauzen ikuspena eta ezagupidea.
—Haurra eta marrazkiak.
—Haurraren abalmena eta sorkunde lana.
—Irudigintza, zentzua eta esan-nahia.
—Antea Herriratu.

EKAINAREN 2an. - LARUNBATA

Arratsaldeko 6tan. Liburu eta Disku Azoka Untzagako arkupetan.

Azoka honetan euskarazko liburuak azalduko dira batez ere, euskal editorial eta aldizkari guztien agerpide.

7tan. Zubietako ZANPANTZARRA eta Arrate Txistulari Taldearen kalejira.

Gaueko 10etan,, kanta, dantza eta txalaparta IHARDUNA Astelena Frontoian.
—Zanpantzarra
—Benito Lertxundi
—Mikel Laboa
—Joxe Mari Zabala
—Xabier Lete
—Pantxo eta Pello
Arze anaiak

EKAINAREN 3an. - IGANDEA
VIII UMEEN EUSKAL JAIA

Goizeko 9tan., Euskal Meza Karmeldarren Elizan.
10etan., talde guztien bilera Urkuzuan.
11etan., dantza, txistulari, karroza eta Zanpantzar taldeen ibilaldia, Urkuzuatik Untzagaraino, Grabadores, Estazino-kalea, Ibargurutze, M. Angela, eta Dos de Mayon zehar.
12'20etan., talde guztien saioak, nork bere gisa, eta aurrez izendatuko zaizkien hauzo eta inguruetan.
2tan. bazkaria.
4'30etan. talde guztien bilera eta dantza ihardunа Ipuruako Foballa Zelaian.
6tan. Erromeria. Agur Jaunak. Amaia.

MUEBLES
URRETAVIZCAYA
1928'an sortutako etxea
ERREDIZAK - EDERGALLUAK
EGIN - GAIAK eta AURRE - KONTUAK
POSTAS. 46 GAZTEIZ (Vitoria)

BAR - RESTAURANTE
AURRERA
HAUXE DUZU ZURE JATETXEA
Urbieta, 12 Urrut.: 411528 - 412578
— DONOSTIAN —



GIPUZKU'KO NEKAZARITZA PIZTU ETA INDARTU
Gure ardurarik aundienetako bat, Gipuzku'ko nekazaritza piztu eta indartzea da; era ontan, probintziko aberastasuna geitu egiten bai dugu.
Gure laguntzakin:
— maisterrak bere baserria erosi dezake.
— nekazaritzarako tresnak erosi.
— abereentzat dituan ikulluak berritu.
— kasta oneko beiak erosi.
Gizartea atsegiñagoa egin.
CAJA DE AHORROS PROVINCIAL DE GUIPUZCOA

(c) Ministerio de Cultura 2005

ELIZAREN BERRI

AIETEKO ELIZA BERRITZEN

Aspaldian ez nintzen Aietetik barrena igaro. Erregebidea lehen bezain koskatsu aurkitu dut. Ipur-salto ederrak atera ditu nere asto txiki Seatak. Kosketan behitzat bizia dago oraindik.

Baina elizaren ondora iritxi naizenean dena aldatua eta zeharo berriturik ikusi dut. Jetxi asto txikiaren gainetik eta bertako apaizetara jo dut hitz aspertu bat egiteko asmoz. Gosari inguruan aurkitu ohi dira apaizak etxean. Garai hortan nintzen ni ere Aieten eta ez dut kalerik egin. Nonbaitetik hizketan hasi behar eta festei buruz egin diet galdera. Izan ere nonbat irakurria bait dut Aietearrek festak garaiaz aldaturik dituztela.

—Zer dela eta aldatu dituzte Aietearrek beren festak?

—Bai, Bazko garaira aldatu dituzte beren festak. Lehen irailaren 14ean egiten zituzten gurutze santuaren egunez. Baina orduan ez dago giro haundirik. Festa gehiegi dago bazterretan. Donostiak bereganatzen du garai hortan inguru guztia. Ez dute maiatzaren hirura aldatzerik nahi izan Aieteko "Gurutze baillaran" egiten bait dituzte egun hortan. Bazko aldira aldatu dituzke. Kristauak ez bait du bere bizia gurutzean amaitzen. Piztuerak garaitu du heriotza. Udaberrian eta piztuera alaitsuaren dirdiretan ospatu nahi dituzte Aietearrek beren festak. Euskal kutsuko jaiak ospatu nahi dituzte gainera.

—Oso aldaturik eta berriturik ikusi dut barru eta kanpo eliza eta honen ingurua.

—Bai, hamaika neke eta buruhauste jasan dugu bitartean. Zerbait egin beharra zegoen. Zeharo ondatua zeukan teillatua. Ustelduak zeuzkan tellatuari eusten dioten egurrak. Berritzen hasi ginan eta dena bukatu arteko onik ez dugu izan. Behar zuen honelako aterpe bat hainbeste balio duen Gurutzeak. Baita berton biltzen den Aieteko jendeak ere. Urtearen buruan hainbeste ezkontza egiten den lekuak ere egokia izan behar du. Guk ondo egin nahi izaten ditugu elizkizunak. Hortarako, lekuak ere tajuzkoa izan behar du. Ikusten duzun bezala iturria jarri dugu bataioak egiteko ere. Jarioka dagoen iturriko ur biziak askoz ere hobeto adierazten du bataioaren esanahia.

—Ez al duzue errazena egin? Zaila izanik ere harrizko eliza berritzea bait da errazena.

—Egia diozu. Baina ez genuke hortan bakarrik geratu nahi. Lehenik ez dugu sakramentuak nolanahi ematen jardun nahi. Orain arte baino gehiago eskatu nahi genieke sakramentuen eske datozenei. Bizitzarako eta gizarterako erabaki bat hartu behar da sakramentuetan. Elizkizunak berak ere eraberritu nahi genituzke. Oraingoz umeekin hasi gara garizuman eta abenduan. Elizatik kanpora egiten dugu umeekin Jainko-Hitzaren ospakizuna. Eukaristiako zatian bakarrik biltzen dira mezatan dauden helduekin. Mezak berak ere gutxitu egin ditugu hobeto egitearren.

—Hori guztia egin beharrezkoa da noski, baina horrekin bakarrik ez dut uste egiazko eliz-berritzerik egiten duzuenik, kristau-elkartea berritzen duzuenik.

—Ezta gutxiagorik ere. Aieteko kristau-elkarte osoa jarri nahi genuke gizarteari begira Taldeka lan egin nahi genuke. Oinarrizko kristau-elkarteak sortu nahi genituzke. Hori da gure asmoa. Ez dakigu asmatuko dugun ala ez. Saiatuko gara behintzat. Lehengoari eutsiz bakarrik ez du Elizak etorkizunik. Zerbait berria sumatu beharrean gaude gaurko jendeari erantzuteko. Gainera guretzat ez da parrokia harrizko etxe hau bakarrik. Horregatik aldatu diogu izena bera ere. "Gurutzeaga" izenez bataiatu dugu. Deitura hori izango dute Aieteko kristau-elkartearen izenean egiten diren lan guztiek: bai elizarenak, bai ikastolarenak, bai beste edozein zerbitzurenak. Eta ekintza honen barruan sartu nahi genituzke baita bertan bizi diren moja-mota guztiak ere. Hiru mojaetxe bait ditugu Aieten.

—Lehendik ere baduzue gauza berriak eta ondo egiten dituzuen sona ingurumari hauetan, baina nola piztu behar duzue suberri hau?

—Harrizko eliz berritzea dela eta hasteko hitzaldi batzuk ipini ditugu. Hor azalduko diegu gure eliztarrei gure asmoa eta hor adierazi ko zaie zer den kristau izatea gaurregun. Egokiera honekin eman nahi genioke lehengoari bultzada eta berriari hasiera.

—oOo—

Aiete beti izan da sona haundikoa. «Goiko-Galtzada» bakarrik zen garai batean Donostiako sarrera eta irteera Hernani aldetik. Ez Añorgakorik eta ez Loiolakorik zuen. Hortxe zen hemeretzigarren gizaldian desegin zen ermitatxoa ere. Eta hortxe dago oraindik hamaseigarren eta hamazazpigarren gizaldikoa den Gurutze Santuaren irudia. Hiru gauza hoiek egin dute sonatua aspaldidanik Aiete. Antzinako sona haundi horren gainean kristau elkarte bizi eta egiazkoa jasotzeko ahalmena opa diegu Aietearrei. Gorputzik gabeko gurutzeaz eta «Gurutzeaga» deituraz ekin diote gaurko Aietearrek lanari. Heriotzaz amaitzen ez den bizitzan sinesten bait dute. Egia, zuzena, askatasuna, bakea, maitasuna, zoriona emango dizkien bizialdian itxaroten bait dute.

IRAOLA

GAZTEAK ETA ZARRAK

DANA EZ DIRA TXARRAK

Alperkeriak uxatu eta
ekiten diot lanari
kastigutxo bat eman bearra
daukat nere buruari;
kristau artean badabil orain
jaunak zer esan ugari
oroitu gabe danok gerala
mundu ontan pekatari.

Urte au ere aurreratu ta
lengo naigabe berdiñak
ai zenbat negar sortzen dituan
alkar ikusi eziñak;
gure barruan sartuta daude
pixti txarrenaren griñak
gizonak gera emen askotan
animalirik aundinak.

Gaur munduari begiratu ta
derrigor esan bear du
maitasunaren arrasto danak
ez ote ditugun galdu.
Alkarren aurka gabiltz egunak
dituan ainbeste ordu
paradiso bat bear zuana
inpernu biurtu degu.

Kristau batzuen jokaera nik
gaur billatzen det itsusi
lagun urkorik ezin du askok
begien pintan ikusi;
gauza onikan iñoiz egin ez
kontatu milla fantasi
oiek ez dute Kriston dotriña
oraindik ondo ikasi.

Neretzat berdin da eskubia
ta berdin ezkerrekoa
bear bezela betetzen badu
daukagun egitekoa;
elizara maiz inguratzea
ez da izaten naikoa
lagun urkoa maite duanak
arek maite du Jainkoa.

Apaiz gazteak txarrak dirala
entzuna naiz publikuan
egi galantak nunbait esaten
oiek beti kulpituan.
Kristo ber-berak orduko itzak
orain esan bazituan
komunistatzat artuko zuten
gizon askok segituan.

Aldakuntzarik nai ez dutenak
egiten diete traba
argiak nunbait miñ ematen da
berak maite duten gaba;
Aita Santuen esanik ere
ez badigute nai laga
emen norena entzun bear da
ori galerazten bada.

Apaiz gazteak neretzat dira
langille purrukatuak
ta berak daude langillearen
problemarekin lotuak.
Badakizkigu guk nola ziran
garai bateko kontuak
orduan ere orain bezela
danak etziran santuak.

Milla tokitan esana naiz ta
ez naiz aspertzen esaten
apaiz gazteak ari dirala
ejenplo onak ematen.
Gure auzoan or ari dira
lana galanki egiten
eliz berria zabalduko da
berairi esker Aieten.

Pausoa franko emanak dira
aspaldian bazterretan
danok dakigu ia bi urte
igaro dira obretan.
Jaunari esker bukatu dira
naiz zerbait egon zorretan
laguntzen faltik ez da izango
seguru nago orretan.

Maiatzerako aldatu dira
gure barrioko jaiak
seguru nago izan ditezke
lengoak bezin alaiak.
Berri on bat nik badet zuentzat
arreba eta anaiak:
lenengo meza emango digu
Gipuzkoako gotzaiak.

Agur bero bat gure gotzaiak
txit merezia ez al du?
Aietearrak, al dezutena°
meza ortara azaldu.
Gure biotzak oso osorik
berari bertan zabaldu
ikusi dezan maitasun garrik
emen eztala itzaldu.

MATXAIN

ELIZA INSTITUZIO (eta III)

Aurreko asteetan ikusi dugu instituzio bat kristau sinesmenarentzat beharrezkoa izanik ere, gaur eguneko instituzio konkreto hau ez dela nahitaezkoa, aldatu daitekeala, salbamen ekintzaren zerbitzuan egokiago gerta dadin.

Problematika honi oraingoz akabera emateko hirugarren galdera gelditzen da erantzun gabe: Instituzioa eta historia.

Aurreko lanean zera genion: Elizaren gaurko eraketa ez dela Jesusek pentsatutakoa, Jesusek horrelako gauzetan pentsatu ere egin ez zuelako, kristautasunaren kondairan zehar eraketa modu bat baino gehiago egon direla, Eliza katolikoaren gaurko eraketa konkretoa kondairan zehar osatuz joan dela eta borobildu, nahiko berandu borobildu dela.

Elizaren eraketaren, instituzioaren osatzeari eta borobiltzeari jarraitzeko Elizak bere buruari eman dion legedia aztertzea da biderik onenetakoa. Izan ere Elizak badu, Idazteunaz beste, bere lege liburua. Liburu hori poliki poliki osatuz joan da gizaldietan zehar, beharraren eragiñaz. Kristau elkarteak haundituz eta sendotuz joan ziren neurrian, elizkizunen ordena eta, orokarki hitzegiñaz, kristau bizitza osoa zuzentzeko lege batzuk, arau batzuk beharrezkoak gertatu ziren; Elizkizunak nork eta nola zuzendu behar ziren, behartsuentzako dirua nork bildu eta nork administratu behar zuen, kristau sinesmenaren irakaskintza noren eskuetan gelditzen zen, Jainkoagandik doai bereziren bat hartutakoek elkartean zuten eginkizuna etab.

Eliza Estaduaren, Erromako estaduaren barruan ofizialki onartua izan zenean, laugarren gizaldiaren hasieran, asko hedatu eta tinkotu zen. Honek lege berrien beharra zekarkien. Horrela poliki poliki legediak eta araudiak ugalduz joan ziren. Lege hoiek kolekzio edo bilduma partikularretan jasoz joan ziren. 12. gizaldira arteko garrantzitsuenak hauek dira: 3. gizaldiko konstituzio apostolikoak, 6. gizaldiko Collectio Dionysiana (Dionysius Exiguus-en bilduma), 9. gizaldiko pseudoisidororenak deitu dekretalak, Frantziako, Espainiako, Afrikako, Erromako, Greziako Elizaren Canon-bildumak. Bilduma pribatu hauekin hersten da Eliz legediaren kondairaren lehenengo aroa: lege zaharraren garaia.

12. gizalditik hasi eta Trentoko Konzilio bitarteko garaiari lege berriaren garaia deitzen zaio. Garai hontakoak dira Grazianoren Dekretoa (12. gizaldian), Raymundo de Peñafortek Gregorio IX garrenarentzat egindako bilduma (Liber Extra, 13. gizaldian), Bonifazio VIIIren garaiko Seigarren liburua (Liber sextus, 13. gizaldiaren akaberan), Clemente Vren bildumak (14. gizaldian) eta Extravagantes deituak azkenik.

Hirugarren aroa Trentoko konziliotik 1917. arte dijoan garaia da. Garai hontan Aita Santuen idatzien bildumak, konzilioetako bildumak, Aita Santuen eta Kuriako kongregazioneen akten bildumak bakarrik aurkitzen ditugu.

Joan den gizaldiaren azken aldera gotzai katolikoen artean Elizaren legedi osoa batu eta liburu bakar batetan biltzeko beharra oso nabarmena zen. Izan ere, ordurarteko legedia zatiturik eta banaturik zegoen, tradizio ezberdinak zeuden eta lege ezberdin eta elkarren kontraesanekoetan baliozkoa zein zen askotan erabakitzerik ez zegoen.

Hori dela ta, Pio IX.garrenaren agindupean ekin zitzaion Elizan lege liburu berri bat idazteari, Elizak ere bere legedia, legedi batu eta bakar bat izan zezan. Lan hori 1917an amaitu zen eta 1918an hartu zuen legedi horrek lege indarra. Gaurko Elizaren eraketa legedi honen araura moldaturik dago, Vatikano IIren aldaketa batuzez beste. Horregatik axola haundikoa zaigu liburu hori nola eta ze girotan sortu zen jakitea.

XIX. gizaldiaren azken aldera ekin zion Elizak lan horri esan dugun bezala. XVII eta XIXgarren gizaldiak kodigoen gizaldiak dira deituak. Bi gizaldi hoietan osatu ziren Europako lege libururik gehienak. Erdi Aroaren bukaeratik osatzen zihoazten Europako estadu burges, batu eta zentralistek beren lege-instrumentoa beharrezkoa zuten batasuna eta zentralismoa sendotzeko. Europako lege bilduma hoiek ez ziren Europako erresumetan kondairan osatuz joandako deretxoari begira egin, hutsetik hasita bezala baizik: gizon guztientzat eta garai guztietan berdina den arrazoimen abstrakto batetan oinarritzen dira. Hortatik legedi hauen eskabide radikala: gizon guzientzat eta garai guztietarako dute balioa. Honek lege bilduma hoien bereizgarri bat gehiago ematen digu: absolutismoa. (Lehenago aipatu ditugu zentralismoa eta batasunkeria). Izpiritu hontan burututako lege bilduma batzuk: Bavierako deretxoaren kodigoa, Prusiako deretxo orokarra (biak 18. gizaldikoak); Austriako lege bilduma orokarra eta Napoleonen Kodigoa (biak 19. gizaldikoak). Hoietan garrantzitsuena Napoleonen kodigoa izan zen, honen arauera osatu bait ziren gainontzeko Europako lege bildumarik gehienak.

Elizaren lege-bilduma ere (CIC, Codex iuris canonici, Código de derecho canónico, legedi kanonikoaren kodigoa) giro hortan sortutakoa da eta gainontzeko lege-bildumen bereizgarri berdinak ditu: zentralismoa, batasunkeria eta absolutismoa.

—Hemeretzigarren gizaldian agertzen da lehenengo aldiz «societas perfecta» (gizarte osatua) esaera Elizari buruz.

—Hemeretzigarren gizaldiaren azken aldean, Vatikano lehenengo konzilioan, bihurtzen da dogma Aita Santuaren hutseziña.

—Lege bilduma berrirako berritzen den guztia Vatikanoko kuriaren sentiduan eta izpirituan berritzen da.

—Lege bilduma guztiak gizon guztientzat eta garai guztietarako balio du.

Elizaren gaur eguneko eraketa lege bilduma honek zuzentzen duenez, ondorena nahiko garbia da: Elizaren eraketa zentralista, bateratzailea eta absolutista da. Eta hori ez hasieratik horrela zelako, eragin historiko eta kulturalak bide direla baizik. Ez ahal da zerbait aldatzeko garaia heldu?

JOSEBA ARREGI

Oharra: Ikus, F. Elsener, «Der Codex Iuris Canonici im Rahmen der europäischen Kodifikationsgeschichte», «Vom Kirchenrecht zur Kirchenordnung» liburuan, Müller, Elsener, Huizing; Einsiedeln, Zürich, Köln, 1968. Ez dakit gaztelaniaz badagoen.

MITXELENA
ORDULARI ETA BITXITEGIA
Dei honi jarraituz bazatoz
zure erlojua KANARIAS bertan
baiño merkeago erosiko duzu
Matxin Arzu, 1 ONDARRABI

(c) Ministerio de Cultura 2005

UMEAREN HEZIERA

Umea noiz hezitzen ote da? Zenbat irakaslek hezitzen ote ditugu umeak? Zenbateraino erasaten ote diote umeari gure asmo zuzenek? Zer da hezitzea?

Utz ditzadan galderak zintzilik, erantzunik gabe. Sar nadin eskolako hormen barruraino. Gelan ume batzuk eta andereñoa edo maixua aurkituko ditut.

Etxe askotako umeak dira, gurasø desberdinen umeak, giro desberdineko haurrak. Bakarra da, berriz, hezle edo hezitzailea gela bakoitzean. Andereñoak eta maixuak mundua, gizona eta gizartea hartzeko era bat du, halako edo holako gurasok duena, baina ez guztiek dutena.

Ez dezagun amets egin. Hezitzaileak ezin etxean utz bere pentsamoldea. Gutxi asko pentsamolde hortaz kutsatuko ditu umeak. Hauen hezierak nahitaez eramango du andereñoaren pentsamoldearen erasana eta kutsua.

Baina inolaz ere onartu ez dezakeguna haux eda: talde jakin baten pentsamolde eta jokabide jakinen eskutan ikastola erortzea.

Heziketaren aurka doan gauza bat da, nere ustez, ikastola mailan politikazko ideologia jakin bat sartzea.

Heziketaren lehenengo baldintza hauxe dugu: umeari gaur-gaitik behera ez erakustea. Irakasleak umeari lagundu besterik ez dio egin behar. Umeak berak esan behar digu zer irakats. Goitik behera umeari sartzen zaizkion gauza hoiek alde batera uztea konbeni da. Badakit han esatea errazago dela egitea baino. Horregatik ez gintezke goitik behera pentsamolde jakinak ezartzen jardun. Horregatik umeari galde bezainbat erantzun egin behar diogu politikazko bide jakineko galderetan.

Bestela umea ari gara gaizki hezitzen eta gurasoari bere gurasoari bere haurra ikastolatik ateratzeko bideak jartzen.

Ikastolak ez dira sortu talde baten pentsamoldeari eusteko. Ikastolek euskaldunen artean dauden talde guztientzat izan behar dute. ikastolak ez du talde baten eskutan erori behar. Bestela ikastolak ez du talde baten eskutan erori behar. Bestela berehalaxe ditugu deseginik.

Onartu beharra dago pentsamolde desberdinak edukitzea. Hori ez onartzea ikastolaren etsai izatea da.

Beraz irakasleak ez badu, zuzenean, politikako ideologia jakin bat irakatsi behar ere ez dauka ahazterik pentsamoldeen desberdintasuna. Ez daukagu ez batzuk eta ez besteak baztertzerik. Guztiak gogoan ditugularik lan egin beharra dago.

Ez daukagu inguru guztia aingeru balitz bezala haurra hezitzerik. Jakin behar du gizartean dauden borroken berri. Baina goitik behera ezer ezarri gabe.

ATAUNGO KOBA BAT: LIMURITA

Ataun oso aberatsa da harpetan, alegia, koba asko dituan herria dala. Nahiz eta lehengo aldi batean «Limuritako Jentilak» idazleak guk aipatuko dugun harpe hortaz idatzita egon, guk berriz esango dugu «ikastola» orrialde ontako txoko hontan. Limurita harpea izango da gure gaia.

Koba hau, San Martingo harrobiaren inguruan Jentil Baratza deritzen zaion mendian dago. Joxe Migel Barandiaranen zuzendaritzapean aztertua izan da. Azterketa oiek 1971-ko urtean egin ziran.

Harpe onek gutti gora-behera hogeita amar metro dauzka. Lurra era askotakoa da: beluna (altxerriz eta zuztarrez nahastua), harroa, orixka, hautsezkoa, arrauka harriz hornitutakoa.

Aurkitutako tresnak: koba onetan giza-hezurrik ez da aurkitu, baina suarrizko tresnak ugari. Beste gainontzekoan, aurkitutako garrantzitsuenak hauek dira:

—Okre gorri batzuk.

—Animalien hezurrak (lepa-hezur bat, hortzak, haginak, eta abar).

—Zenbait hezur harri bihurtuak.

—Harrizko seiren bat tintil.

—Bost bat motatako lurrontzi zatiak.

—Suarrizko zulakaitzak, mihizto mutur bat; suarri igeki bat, suarri printzak.

—Suharrizko marruxko zulakaitz bat.

—Burdin maila bat.

Eta bukatzeko, esan dezagun guk ere: alegia, harpe hau ilobi bat dala, orain dala lau mila urtekoa gutti gora-behera. Hori da Joxe Migel Barandiaran maixuak harpe horregatik beste gauza batzuen artean esaten ziguna. Gainera, koba hau, Goierri bailarako garrantzitsuenetakoa da.

OSKIA ZEBERIO (12 urte)
MILAGROS AIERBE (12 urte)
(Ataun)

IPUI BAT

Egun batean, gerta zan gauza arrigarri bat.

Gizaki bat zegoan lora bati begira; eta une batean, hasi zan kantari.

Orduan, loreak esan zion: «Ixildu zaitez, gizaki gaiztoa. Ez al dakizu lotan nagoala zuen gaitzagatik? Horregatikan, utzi zaidazu pakean, ez badezu nahi hil egitea nere bizia».

Hori entzutean, gizaki hori ixildu egin zan eta pentsatzen hasi zan: «Zer gaitz eman diogu guk loreari?».

Horrela zebillela, inguruan pasa zan inguma gorri bat, isats luze batekin. Eta, pasatzean, esan zion: «Zertan zaude or, lore horri begira? Ez al dakizu gizakiak geldik egoten bazerate, nahastu egiten zeratela?».

Ingumari entzutean, gizakia oztuta gelditu zan. Pentsakizun nahastuak etortzen zaizkion bere burura. Berak horrelako gauzarik behin ere ez zuan entzun eta, jakiña, ez zekian zer pentsatu.

Gizaki hori horrela ikustean, jaun goiko bat berarengana jetsi zan (arritzekoa!) eta honela itz egin zion: «Zer gertatzen zaizu, gizaki lakatsa?».

Orduan, gizaki honek erantzun zion: «Ni lakatsa izango naiz baiñan, zu oraindik lakatsagoa zera eta bai ta ere zu bezelako beste jaun goiko guztiak».

«Ixildu zaitez, gizakia! Zein zera zu neri horrela itz egiteko?».

«Ni bihurri bat naiz eta zure, eta zu bezelakoen, aurka nago!».

IMA OTZ
(Baiona)

San Tomas Lizeoko zakurrari

—1—

Zakur leial, jator bat
atean zaindari
atean zaindari,
jarria daukazute
gaizton salatari.
Zakur orrek ba-dauka
eskola ugari
sekula zaunkarik ez
geiago danari...
Ez al-da au egia
andereño Mari?

—2—

Oraindik gaztea da,
sei bat illabete
sei bat illabete,
baiñan begiz argia
ta belarriz tente.
Jende ez ezagunei
golpez eman frente,
Lizeon era ortan
edukatu dute...
Bere «profesorea»
du etxe-zai Lete.

—3—

Salatzen astian, rau!,
aurretikan alde
aurretikan alde,
bestela ozka gogoz
asten da debalde.
Larriak pasatuei
egiozu galde,
eskarmentu dutenak
ortxen lau ba-daude...
Iru andereño ta
maixu bat alkate.

—4—

Azkotin jaioa da
razaz alemana
razaz alemana,
HITLERek bezelaxe
egiten du lana.
Aurretik laixter kendu
gogozko ez dana,
grazi berezi bat du
eretxek emana,
esanaz: «Alperrari
zertan eman jana»?

—5—

Eskerrak alper txarrik
ez dala barruan
ez dala barruan,
danak saiatzen dira
legezko moduan.
Alproja-ontzik auxen
eduki goguan,
obe dezute bizi
ortikan kanpuan...
Bestela zakur ori
beti amorruan.

—6—

Tipoz dotoria da
illajez polita
illajez polita,
gaiñera ikasia
onuntz etorrita.
Asko jardutzen dira
bera ikusita:
«Donostiako modak
zeuzkak ikasita.
traketsagok ba-dituk
milla señorita»!!

—7—

Aurrak goizen goizetik
oruntz etortzian
oruntz etortzian,
danak agurtzen ditu
zerbait ekartzian.
Losintxa ikusgarrik
aurre ta atzian,
enbusteria pranko
jan oiek artzian...
Diplomatikua da
nere iritizian!!

—8—

Olako ate zairik
ez dago ez nun nai
ez dago ez nun nai
arrotzentzat mutur beltz
sekula ez alai.
Zuen gauzak gordetzen
ederki daki, bai,
beti ate ondoan
lapurrak etor zai,
i orrela portatu
urte askotan, JAI!!!

IBAI-ERTZ

(c) Ministerio de Cultura 2005